

# Arratia inguruko kanta partida AK-37 taldearen eskutik

Iñaki Esparza Ordeñana, Angel Larrea Beobide, Juan Rekalde Izagirre

Arratia Institutua

larreabeobide@yahoo.es, j.i.esparza@euskalnet.net, juan rekalde@yahoo.com

## Abstract

This collection of songs is part of the project known as *Gure Berbategie*, which started in 1999. In 2006, and also within the same project, AK-37 was created, a music group named in honour of the *Arratia Konpainia* Civil War Battalion. When enough songs were gathered, and the collection was a nice-sized treasure, the students recorded them. *Arratiako kanta partida* is the result, an album made up of four CDs: three recorded by AK-37 between 2006 and 2010 including Carlist Wars and Civil War songs, traditional songs and popular songs; and a fourth CD, recorded in 2010, consisting of children's songs sung by some students' parents.

## Laburpena

1999. urtean jaiotako "Geure Berbategie" proiektuaren barruan. Bide horretatik jota, 2006. urtean eta ikasleen partaidetzaz sortu zuten AK-37 musika taldea; izena, jakina, gerrako gudarien ARRATIA KONPAINIA-ri (AK) egindako omenaldia da. Hainbat kanta batu ostean, altxor polita osatuta zeukatenean, ikasleei proposatu eta grabatu egin ziren. Horren guztiaren emaitza da "Arratiako kanta partida" bilduma hau. Bertan AK-37 taldearen hiru diska daude 2006-2010. urteen artean eginak, gerra kanta (karlistaldikoak eta guzti), kanta tradizional eta herrikoiekin; laugarren diskan, 2010ean grabatua, ikasleen guraso batzuek parte hartu dute umeen kantak abestuz.

**Keywords:** Arratia, Basque songs

**Gako hitzak:** Arratia, euskal kantak

## 1. Arratia Konpainia: AK-37 Taldea eta "Geure Berbategie" Proiektua

Arbasoen kulturak bizirik iraun dezan gaurko egoerara egokitzea besterik ez zaio geratzen. Baina zelan egin? Saiatuz eta arriskuak hartuz, zalantza barik. Haor kokatu behar da "Geure Berbategie" proiektua, AK-37 musika-taldea, hiztegia eta enparauok.

1999.urtean ARRATIA BHIn irakasle talde batek asmatu zuen "Geure Berbategie" proiektua. Hasierako helburua izan zen hil aginean zeuden Arratia aldeko berbak batu, ahal dela, berpiztu egitea. Ikasleekin elkarlanean, egiten hasiaz batera konturatu ginen altxorra, guk pentsatzen genuena baino askoz aberatsagoa zela. Honela jaio zen "Arratia inguruko Hiztegia" (Larrea & Rekalde: 2010).

Baserri-etxeetako ibilaldietan behin eta berriro ateratzen zen izena da Arratia Konpainia. Eta hain garrantzitsua izanik eskualdeko memoria kolektiboan, zergatik ez du izan errekonozimendu publiko duinagorik? Zergatik ez genekien ezer euren buruz eskola eta ikastetxeetan?

Bide horretatik jota sortu genuen AK-37 musika taldea. Izena, jakina, gerrako gudarien ARRATIA KONPAINIA-ri (AK) egindako omenaldia da. Konpainia hau Ibaizabal Batailoiaren barruan zeuden bost konpainietatik bigarrena zen. 37 zenbakia 1937ko urtearena da, jakina. Urte horretan, gudariok Billerle

edo Legutiano herriko borrokaldi latzean izan ziran otsailaren 30ean, bertan ehunka hil zirelarik. 1937ko urtarrilean Batailoiak Eibarren egin zuen borroka. Eta maiatzaren 9 eta 10ean Eubako frentean, "Heriotzako Pinudia" izenez ezagutu zuen 333 koto eskuratzeko borroka itzulean. Ekainaren 14an Lañomendi inguruan, "Cinturón de Hierro" delakoaren defentsan. Han ehun lagun inguru galdu zituen, euren artean Arratia Konpainiako kapitaina zen Raimundo Pujana. Gerotxoagoan Enekuri-Lutxana aldera egin behar izan zuten ihes eta handik Kantabria aldera. Hauxe izan zen konpainiaren atzema eta baita euren, zeren gerra galtzeaz gain euren ohorea ere ia betiko ahaztuta gelditu baitzen.

"Geure Berbategie" osatzeko asmoz zaharrekin egiten ditugun berbaldietan, euren bizimoduaren gaineko berbeekin batera hainbat kanta ere batu ditugu, eta batzuk gerrako kantak dira. Altxor polita osatuta geneukanean, ikasleei proposatu ostean grabatu egin ziren. Zer esanik ez, ezinbesteko gertatu zen Josu de la Fuente musikari eta irakaslea eta Pedro Romeoren soinu-teknikariaren laguntza arlo teknikoan.

## 2. "Umeen zentzune etxean entzune" proiektua

Euskararen normalizazioaren prozesuan murgildurik, gurasoen paper nagusiaz jabetuta, "Umeen zentzune etxean entzune" ekimenari ekin genion. Jakina

denez, gurasoak dira hizkuntz transmisioaren arloan giltzaren jabeak. Ez eskola, ez gobernu, ez udala, ez eta komunikabideak.

Zelan eragin bada kontu horretan, zelan kontzientziatu aita eta amak? Eta etorkinak badira, zelan lotu kanpoztarrak gure hizkuntzarekin? Zelan konbentzitu merezi duela euskaraz egitea?

Buruhauste honetan sartuta gaudela, bururatu zitzaigun gurasoak martxan jartzea. "Geure Berbategie" proiektuko ikerketetan jasotako kanten artean bazeuden batzuk umekantak zirenak. Bada, kudeatzaile ardura hartu eta pentsatutakoa bideratzen hasi ginen. Zortzi eskoletako hizkuntz normalkuntza teknikarien laguntzarekin guraso elkarteak saltsan sartu genituen. 2010ko ekainaren 12 eta 16an, grabatu ziren dozena eta erdi kantatik gora. Herri guztietako gurasoek hartu zuten parte, hasi Bediatik eta Zeanuriraino, 63 musikari eta kantari guztira ume kantak abesten.

Hurrengo erronka da herri guztietako umei CDaren ale bana ematea. Batez ere, etorkinei eta jaioberri guztiei. Haur kanta hauen bidez irabaz litezke, bai, euren bihotzak, eta hauxe izango da etorkizuneko euskal hiztunak lortzeko lehen pausutxo.

### 3. Diskografia

#### 3.1. Lehenengo diskoa: "Arratiako kanta galduak" (2006)

Ahotsa eta kitarra : Esti Olibares

Perkusioa eta ahotsa: June Iturriaga

Trikia: June Egileor eta Ane Posadas

Soinu handia: Ane Iturrioz

Kitarra elektrikoa eta ahotsa: Pello Artabe

Pandereta eta ahotsa: Asier Beobide

Pandereta: Ana Aldape

Txistua: Maitane Olatz Bilbao.

Bateria: Ugatz Lekue

Alboka: Ageda Kamairuaga

Ahotsak: Aiora Yurrebaso, Eider Bernaola, Garazi López...

#### 3.2. Bigarren diskoa: "Kanta galduen bila" (2008)

Ahotsa eta kitarra: Esti Olibares

Ahotsa eta perkusioa: June Iturriaga

Soinua: Ane Iturrioz

Ahotsa eta flauta: Olatz Goikoetxea

Trikia: Maitane Ipiñazar

Bibolina eta ahotsa: Beñat Berrueta

Txistua: Eukene Uriarte

Ahotsa: Illart Gumuzio

#### 3.3. Hirugarren diskoa: "Hurrekoa hurrean", 2011. (Grabatuta eta argitaratzeaz)

Ahotsak: Iraia Inunziaga, Irati Urien, Josu Payas, Naiara Zurinaga

Trikia eta ahotsa: Ane Gorostiaga

Bouzoukia, baxua eta kitarra: Ibon Ordoñez

Alboka, flauta, txirula eta gaita: Xabier Valle Alava

#### 3.4. Laugarren diskoa: "Umeen zentzune etxean entzune", 2011. (Grabatuta eta argitaratzeaz)

##### 3.4.1. Areatzako eskola

Ahotsak: Nerea Zuloaga

Argi Etxezarraga

##### 3.4.2. Arteako eskolea

Trikiak: Iker Allur, Maialen Madariaga, Ainhoa Bernaola

Ahotsak: M. Carmen Esparta, Josu Aginaga, Luisi Lopez, Inés Bernaola, Itxaro Basterretxea, Itxaso Etxebarria, Sara Iturbe

##### 3.4.3. Dimako eskola:

Trikia: Andoni Garai

Kitarra: Mikel Pelaez

Ahotsak: Pili Esteve, Covadonga Garaizar, Iruna Gaskon, Mabel Pizarro, Andoni Garai, Xanti Gutierrez, Fernan Lekue, Mikel Pelaez

##### 3.4.4. Igorreko Arratia Institutua

Soinua: Ane Miren Sarmantón

Kitarra : Begoña Barroeta

Ahotsak : Karmele Aurrekoetxea, M<sup>a</sup> Carmen Txikon, Margarita Barrenetxea, Luci Linares, Josune Azkuenaga, Ana Barandika, Arantza Martínez

Perkusioa: Jabier Intxausti

Ahotsak: Maite Artabe, Sorkunde Atutxa, Janire Ortuondo

### 3.4.5. Igorreko Inazio Zubizarreta eskola

Metalofonoa eta giroa: Mainer Oyarzun

Xilofonoa eta ahotsa: Bihotz Gorospe

Klabeak eta ahotsak: Mainer Oyarzun, Helena Bernaola

Triangelua eta ahotsa: Elena Arroyo

Ahotsak: Iratxe Barrenetxea, M<sup>a</sup> Carmen Olivero, Nagore Rodriguez

### 3.4.6. Zeanuriko eskola

Teklatua : Jorge Trueba

Ahotsak : Irune Zuluaga, Onintze Zuluaga, Aitor Urigoitia, Jaione Linaza, Eva Maria Garcia

### 3.4.7. Lemoako Eguzkitza Meabe eskolea (Lemoa eta Bediako aita-amak)

Ahotsak: Miriam Barkos, Lurdes Ortega, Izaskun Iturrioz, Judith dos Santos, Remedios Norinha, Ana Rosa Torres, Maixa Amundarain

### 3.4.8. Zeberioiko eskola

Akordeoa: Maria Junkera

Albokea: Juanjo Lazaro

Trikitixa: Peitxo Sagasti

Ahotsak: Jose Iglesias, Itziar Aranguren, Peitxo Sagasti, Juanjo Lazaro, Maria Junkera, Kepa Perez Urraza, Maribi Alaiz, Jose Ramon Gorostiaga, Josean Elorrieta, Jesus Zubiaur, Piedad Idirin, Pili Vazquez

## 4. Kanten sailkapena urteka

Diskoetan argitaratutako hurrenkeraren berean ekarri dira.

### 4.1. "Arratiako kanta galduak". AK-37 (2006)

1. Peru Peru zu beti arpela!
1. Neska graziosa batek Dimako herrian
2. Hamabietan senargei nintzen
3. Obabatxua lo ta lo
4. San Antonio santu handia
5. Bertsolaria enaz ni baie
6. "Euzkadi" egazkiñaren alde
7. Errotabarriko Erromaldo
8. Iñaki bizkaitarra
9. San Martin esaik bat! / Ai Martin (moldaketa)
10. Zapi ta zapi esanagaiti

### 4.2. "Kanta galduen bila". AK-37 (2008)

1. Baltseoa da baltza
2. "Euzkadi" egazkiñaren alde
3. Reketeruak, reketeruak
4. Frantzie parteti
5. Aitite ta amama basora joan dira
6. Ipiñaburu leku altuan, Undurragaren buruan
7. Hasi Sarrikolandan, Gallarta goraño
8. Eusko gudariak
9. Ixedro Olabarriko Igetuburuan

### 4.3. "Hurrekoa hurrean" AK-37, 2011. (Grabatuta eta argitaratzean)

1. Zeanuritik baraurik
2. Zerrariak ("Moret"en bertsioa)
3. Carlos Setimo eta
4. Karlistetako jeneral faltzuak
5. Fraisku galtzazahar eta
6. Eguzkiaren askatasuna
7. Aramotzetik Garamendira
8. Ama zuriak neuri

### 4.4. "Umeen zentzune etxean entzune". Gurasoak, 2011. (Grabatuta eta argitaratzean)

1. Txirintxanketan
2. Atxean motxean
3. Txalo-pin-txalo
4. Din-dan
5. Txakolin
6. Obabatxoak
7. Atzamarren kontutxua
8. A,a a, Ipiñako bizkarra
9. Txikitxu polit hori
10. Txako ta txako
11. Sabin Sabintxu
12. Erregen Erregen
13. Lehenengotxu hori
14. Garia saltzen nengoenean
15. Lehenengotxu hori
16. Santa Ageda koplak
17. Goizean Parisen
18. Egun bolontena
19. Ogarabeiti dago
20. Ez dao errotan harririk
21. Bela, bela Jaune

## 5. Abestien sailkapena gaika

### 5.1. Kanta historikoak

#### 5.1.1. Gerra kanta

1. Karlistadetakoak
  1. Carlos Setimo eta eta Doña Margarita
  2. Karlistetako jeneral faltsuak
2. Gerra Zibilekoak
  1. Eguzkiaren askatasuna
  2. "Euzkadi" egazkiñaren alde
  3. Eusko gudariak
  4. Reketeruak, reketeruak

#### 5.1.2. Gertaera historikoetan oinarritutakoak

1. Baltsea da baltza
2. Bertsolaria enaz ni baie
3. Goizean Parisen
4. Neska graziosa batek Dimako herrian
5. Santa Ageda koplak
6. Zerrariak / Lapurretzeko zerrea ("Moret"en bertsioa)

### 5.2. Kanta alaiak

1. Ai, Peru Peru zu beti arpela!
2. Aitite ta amama basora joan dira
3. Aramotzetik Garamendira
4. Errotabarriko Erromaldo
5. Fraisku galtzazahar eta
6. Hasi Sarrikolandan, Gallarta gorano
7. Ipiñaburu leku altuan, Undurragaren buruan
8. Ixedro Olabarriko Igertuburuen
9. Txako ta txako
10. Txakolin
11. Zapi ta zapi esanagaiti
12. Zeanuritik baraurik
13. Santa Ageda koplak

### 5.3. KANTA ERLIJIOSOAK

1. Iñaki bizkaitarra
2. San Martin esaik bat! / Ai Martin (moldaketa)

## 5.4. MAITASUN KANTAK

1. Ama zuriak neuri
2. Garia saltzen nenbilanean
3. Hamabietan senargei nintzen
4. Frantzie parteti

## 5.5. Ume kanta

1. A,a a, Ipiñako bizkarra
2. Atxean motxean
3. Atzamarren kontutxoak
4. Bela, bela Jaune
5. Din-dan
6. Egun bolontena
7. Erregen Erregen
8. Ez dao errotan harririk
9. Lehenengotxu hori (I eta II)
10. Obabatxoak (I eta II)
11. Ogarabeiti dago
12. Sabin Sabintxu
13. Txalo-pin-txalo
14. Txikitxu polit hori
15. Txirintxanketan

## 6. Kanten hitzak eta azalpenak

### 6.1. Kanta historikoak

#### 6.1.1. Gerra kanta

##### 1. Karlistadetakoak

1. Carlos Setimo eta eta Doña Margarita

Carlos Setimo i eta Doña Margarita  
Carlos Setimo i eta Doña Margarita  
laster ikusiko do(gu)z tronuan jarrita,  
ai oi ai mutilak, tronuan jarrita.

“Luki”ek bajozak Gorbeien leza ezkutuek<sup>1</sup>  
“Luki”ek bajozak Gorbeien leza ezkutuek  
Ai oi ai mutilak, bere soldaduek,  
Ai oi ai mutilak, txapelgorriek.

---

<sup>1</sup> Kantatzeari utzi eta zehazten du lekukoak: *horreek jeneralak ziran*

“Luki”e Zeanurin, Simon Torres Billaron  
Hantxe gordetan jozak bere soldaduek.

“Luki”e Zeanurin, Simon Torres Billaron  
“Bruzalis”en tropia Arteagan egon,  
ai oi ai mutilak, Arteagan egon.

Igez<sup>2</sup> baso-mutilak, eurten plazakuak,  
igez baso-mutilak, eurten plazakuak,  
laster izingo (go)zak gu Bilbora sartuak  
ai oi ai mutilak, Bilbora sartuak.

*Iturria:* Patxi Egiraun (Ziarrustabeiti baserria, Dima)

#### *Azalpena:*

Abesti honen musika gaztelaniazko “Cuando Fernando Séptimo usaba paleta” kanta ospetsuarena da. Lehen eta Bigarren Karlistadetako pertsonaiak nahastuta ageri dira abestiaren hitzetan:

Lehen Karlistadakoak (1833-1839): "Luki", Simon Torre eta "Bursalis" pertsonaia ospetsuak izan ziren inguru hauetan, holako kantuetako protagonista legez geratzeko. Dirudenez, Bilbo hiriaren setioko garaikoa (1873) behar du izan kantuak hitzetan antzeman daitekeenagatik: “laster izango gozak gu Bilbora sartuak” eta “igez baso-mutilak, eurten plazakuak”. Ondorioz, kanta hau 1874koa dela esan daiteke.

**Luki** ezizenduna Lehen Gerra Karlista hasi zenean kapitaina izan zen. Izenez Juan Antonio Berastegi Urraza zen, Ugaon jaioa 1797.urtean eta Areatzan hila 1869an.

Geroago, Bizkaiko Bigarren dibisioko Lehen brigadako brigadier izatera heldu zen. “Luki” ezizenarena, gerra estrategietarako zeukan dohainetik datorkio. Luki berbak azeri esan gura du eskualde honetan, eta jakina da tradizioan, azeriak duen gaitasuna ihes egiteko orduan.

**Simon Torres:** Simon de la Torre Ormaza (Larrabetzu, 1803-Areatza, 1884). Lehenengo tenientea eta gero kapitaina izan zen; 1826an Erregearen Guardian sartu eta lasterrera komandante izatera heldu zen. Geroago karlisten ejerzitoaren sartuta, 1834. urtean Iparraldeko Ejerzitoaren koronela eta brigadierra izan zen, eta 1835ean mariskala. Bakea lortzearen, Bergarako Hitzarmenaren alde egin zuen sutsuki.

Salzedo koronelarengandik ihes zihoala Orozkoko Ibarra auzoan harrapatu zuten Simon de la Torreren taldea. Baina gure pertsonaia ez zuten harrapatu. Atrapatuta eta ezkutaturik zen etxetik ihes egitea lortu zuen, eskale moztuz jantzita, arerioen tropen erdi-erdietik pasatu ondoren. Ospetsua behar zuen beraz!

Bere karrerak gora eta gora egin zuen, azkenean Cubako Santiago hiriko gobernadore eta Puerto Ricoko kapitain jenerala izatera heldu zelarik.

**Bursalis** edo **Bruzalis** nor den jakitea erraza izan ez bada ere uste dugu Vicente González Moreno (Cádiz, 1778-Urdazubi, 1839) izan zela. "Bursalis" González abizenaren muturreko herri-ahoskera litzateke. Andaluziar jatorridun militar honek frantsesen aurkako Gerran Valentzia hiriaren defentsan hartu zuen parte. Urte batzuetara Malagako gobernadorea izan zen eta bertan "El verdugo de Málaga" ezizena jarri zioten Torrijos Uriarte liberala eta bere lagunak hiltzea agindu zuelako. Geroago karlista zela eta, zigortu egin zuten eta alde eginik, Portugalera ihes egin zuen. Handik karlisten Iparraldeko Ejerzitorea pasatu zen eta 1836an buru izatera heldu zen. Oriamendi eta Villar de los Navarros-eko garaipen ospetsuak lortu zituen. Baina Bergarako Ituna sinatu ondoren berriz ere, ihes egitea pentsatu zuenean, Frantzia aldera joateko asmoz zegoela, desertoreen talde batek hil egin zuen Nafarroako Urdazubi herrian.

Bigarren Karlistadakoak (1872-1876) dira **Don Karlos VII** eta **Doña Margarita** (Margarita Parmakoa, 1847-1893). Don Karlos edo Karlos Borboikoa eta Bragantza Estekoa (Ljubljana, Eslovenia, 1848-Varese, Italia, 1909), Madrilgo dukea, Espainiako erregea izan zen eta Karlos VII.a izenez eskuratu nahi izan zuen Espainiako tronua.

#### *2. Karlistadetako jeneral faltsuak*

Karlistetako jeneral faltsuak  
itxi mutilak eta iges<sup>3</sup> e(g)inekuak.  
Hango tiruak eta lañuak.  
han zirean bai kaiñonazuak.  
Hango tiruak eta lañuak  
han zirean bai kaiñonazuak.  
Karlistetako jeneral faltsuak  
itxi mutilak eta iges<sup>3</sup> einekuak.

*Iturria:* Patxi Egiraun (Ziarrustabeiti baserria, Dima)

#### *Azalpena:*

Karlisten gudaldiko borroka bateko ekintza zehazten da. Jeneralen eta soldaduen arteko kategoria eta funtzio desberdinen ondorioz, ohi denez, "mutilak", abangardiako soldaduak, dira frontean hiltzen direnak. Atzean, ondo babestuta izaten dira beti agintariak.

#### *2. Gerra Zibilekoak*

##### *1. Eguzkiaren askatasuna*

<sup>2</sup> iaz, joan den urtean

<sup>3</sup> ihes, gaztelaniazko ‘huir’.

Eguzkiaren askatasuna  
basotik urten da  
bere argia edonun arin  
zabaltzen da.

Itxartu zaitez euskalduna!  
Aupa euskaldun guztiak!  
Gora, gora  
antxinako legera!

Itxartu zaitez euskalduna!  
Aupa euskaldun guztiak!  
Gora, gora  
antxinako legera!

**Iturria:** Florentino Yurrebaso Iruarrizaga (Ziarrusta auzoa, Dima)

**Azalpena:**

Ideologia abertzalea dario kantu honi alde guztietatik. Garaian bogan zegoen Sabino Aranaren bideari jarraituz, "Jaungoikoa eta Lege Zaharra" ospetsuaren defentsa egiten da kantu honetan. Askatasunaren aldeko altxamendurako deia egiten zaie euskaldunei.

2. "Euzkadi" Egazkiñaren alde

Berregun eta berrogei eta  
amaikagarren urtian,  
emakume bat jagi zan sutsu  
azkatasuna lortzian.

Enperadore Palermokuak  
gix indarragaz poztu zan,  
uri, baserri, sendi ta eskaratz  
menpeko egin ebanan.

Gizaldi hontan be<sup>4</sup> hauxe jaso *da*  
gudalburu arroakaz,  
lugin langilok menpekotu ta  
faxistan<sup>5</sup> arau loyakaz.

Agate Deuna iragi eban  
Kiston ikurrin garbiya.  
Augaz batera azkatu eban  
menpeko egon sendiya.

Euzkotarrok be ara non gaozan  
uri, baserri, mendiyen,  
Jaungoikoa ta Lagi-Zar alde  
azkatasuna lortzian.

Onetarako sendi bakotxan  
laguntasuna bihar du,  
guk odolagaz, zuok txindiaz  
garaitzarte lagundu.

Euzko Burubai egazkin bat gaur  
izkindutia oitu da.  
Onetarako zerbaiten eske  
euzko gudariok gara.

Etxeko jauna, txiki ta handi,  
danon sakelak zabaldu,  
Euzkadirentzat egazkintxo bat  
ia zuzendu al badu.

Agur uzaba ta etxekotxubok  
Deun Agategaz jarraitu  
Jaungoikua ta Lagi-Zar alde

Erbia dago azatzan  
errikumea babatzan  
etxe honetako uzaba jauna  
samarañoko kakatzan.

**Iturria:** Bizente Etxezarraga "Zidorra" (Zeanuri, 1891-Rawson, Argentina, 1968) Santa Ageda egunerako kanta, *Eguna* egunkari abertzalean 1937an argitaratua.

Azken koplak, eskertzarreko koplak, geuk gehitua da. Juan M. Etxebarriak Zeberion jasoa da.

**Azalpena:**

B. Etxezarragaren bertsook birritan grabatu dira 2006 eta 2008ko diskoetan. Hain zuzen ere, garrantzi berezia izan duelako guretzat.

1936-37ko neguan faxisten tropak Bizkaian sartzeko ateetan zeudenean, nazionalen nagusitasun militarra argi zegoen, batez ere aireko borrokaren nagusitasunagatik. Hala eta guztiz ere, herri xehea ez zen egoera larri horren jabe. Honen frogak da Santa Ageda jaiegunerako prestatu zuten errolda berezi hau.

Ohitura denez, otsailaren 4an, Santa Ageda egunaren bezperan arratiar koadrilak eskean ateratzen dira: Batutakoa, gaur egun behartsuei ematen bazaie ere, lehenago gazteentzat eurentzat zen. Baina 1937 urte horretan, bertsoek argi erakusten dutenez, jasotako diruak Euzko Gudarosteak behar-beharrezko zuen hegazkin bat erosteko bideratu zen.

Gai erlijiosoa eta gai militarra uztartuta ageri dira bertsoetan, orduko garaiko gizartearen egoera latzaren ispilu legez. Diru batzea, Arratiako herri guztietatik egin zen, kantariak kamioi batera igonda hara eta hona ibili zirelarik.

Honela bada, 2008ko otsailaren 4an, 71 urte geroago, Francoren aurka egiteko hegazkintxo erosteko helburuz egindako Santa Ageda errolda birgogoratu genuen. Arratiako bederatzi herrietatik ibili ginen, Bedian hasi eta Zeanurin amaituz. Kamioiarekin herrietara sartu, aparkatu eta kanta bat egiteko montaje guztia egitea gutxitxo eretxita, bigarren gerra kanta bat ere abestu zen: "Euzko gudariak" ereserkia.

<sup>4</sup> be>bt originalean

<sup>5</sup> 'pasistan' originalean

### 3. Eusko Gudariak

Eusko gudariak gara  
Euskadi askatzeko  
gerturik daukagu odola  
bere alde emoteko.

Faxistak datozela  
Euskadire sartzen  
goazen gudari danok  
geure aberria zaintzen.

Eusko gudariak gara...

Gure aberri laztanak  
dei egin deusku-ta  
goazen gudari danok  
izkilluak hartuta.

Arratiarren borroka  
izan da Intxortan  
Mola ta erreketek  
gelditu dira bertan.

Ikurriña goi goian  
daukagu zabalik  
ez da iñor munduen  
erantziko dauenik.

Eusko gudariak gara...

Nahi ta etorri Mola  
ta mila reketek  
ez da iñor sartuko  
bizirik garan arte.

Agur Intxorta maite  
gomutagarria  
Arratiako mutilen  
garaitzaren tokia.

Faxista ez da sartuko  
ez Euskal Herrian  
eusko gudariren bat  
zutik dauen<sup>6</sup> artean.

Eusko gudariak gara...

**Iturria:** Florentino Uriarte (Mugarraga baserria, Zeanuri)

#### **Azalpena:**

Gerra Zibileko bizkaitarren, abertzale edo nazionalisten, kanta. Intxorta mendian, Elgeta inguruan, izandako borrokaren ostean egindako koplak hauek, lekuko askoren ahoetan jasotzeko aukera izan dugu. Joseba Tapiak "Agur Intxorta maite" diskoan ere

<sup>6</sup> dagoen

interpretatu zituen. Kantaren letraren hasiera Garaterena da eta ondorengo bertsoak, "Arratiarren borroka...", Basilio Pujanarenak dira.

Kantu honen hitzetan agertzen diren datu historikoak frogaturik daude, Mola jenerala eta erreketen tropak izan ziren, Gipuzkoa galdu ondoren, Bizkaia hegoaldetik erasotu zutenak. Gorbeialdera sartzen lehenak izan ziren beraz.

### 4. Reketeruak, Reketeruak

Reketeruak, reketeruak,  
jaungoikoaren katuak,  
Gorbeialdeak<sup>7</sup> billoz<sup>8</sup> ditue  
gure artzain koitaduak.

Ehunda ehundaka ardiek ohostu  
katolikori zintzuak  
Manuel maisuen ikertengiñik (?)  
estrema deretxakuak.

Bizkaitar izen izpirik badau  
guzti-guztiok billostu  
Gora Kristo Rey!, irrintz eginda  
erlejiñoa kakaztu.

**Iturria:** Antonio Sagarna "Kariño" (Artaun auzunea, Dima)

#### **Azalpena:**

Gerra Zibileko kanta. "Rekete" izeneko tropa nafarrak, oso famatu egin ziren euren fanatismoagatik. Ultra-eskuindarrak ziren eta nazionalen alde buru-belarri egin zuten abertzaleen aurka. Kanta honetan, gerra guztietan legez, behar den jatekoa ohostu egiten dute gerlariak. Oraingo honetan Gorbeialdean egindako lapurretak kontatzen dira. Erlinjinoaren izenean ohostu eta dana kakaztu. Horrela kantatu zigun A. Sagarna "Kariño", Artaungo artzainak.

### 6.1.2. Gertaera historikoetan oinarritutakoak

#### 1. Baltseoa da baltza

Baltseoa dala baltza,  
baltza da baltza,  
lizuna da eta motza  
gazte bilketa.  
Jagon deigun bihotza,  
emoiozu ezetza,  
mutilori dozu baltza  
ta heriotza.

Ibili eta ibili  
eta gorputzez oinez,  
Dimen ginen ibili  
ta nora joan ez.

<sup>7</sup> Gorbeialdeak esaten du, baina Gorbeialdean dela ematen du  
<sup>8</sup> biluz, biluzik.

Zeure izen onorez  
aitu zeinke bai errez  
dekozula berez berez  
eitea burlez.

**Iturria:** Simona Intxaurre (Olabarri errota, Zeanuri)

**Azalpena:**

Gure herrietan zegoen moral tradizionalak, Elizaren babesarekin, ez zituen onartzen mutil eta nesken arteko dantza lotuak. Lizunak ziren. Hori dela eta hainbat herritan, Zeanurin berbarako, elkarri gerritik edo eskutik helduta dantzan egiten zutenak zigortzen zituzten. Elizaren agindua lege bihurtu zen. Kanta honek "balts" dantza mota zein txarra den azaltzen digu. "Baltsa" dantza eta "baltza" kolorea parekatuta datoz bekatuaren ezaugarri balira legez. Zaindu bihotza, eman ezetza, lizunkeriar, hau da mutilaren proposamenari.

2. *Bertsolaria enaz ni baie*

Bertsolaria enaz ni baie  
bai bertsolarien laguna  
txarto nahi ondo jartzera noa  
gaur entzule euskalduna.

Noiñokua<sup>9</sup> zan ikusiteko  
herri gestoren<sup>10</sup> zentzuna  
ta ze modutan ordaintzen eben  
herrien laguntasuna.

Laguntasuna eskatu eben  
da honetan zintzo herri dana  
baina eskerrak hartzeko barriz  
kanpoti ekarren jauna.

Gauza edertzat ezan hartua  
herri gestora egiña  
bati bakarrik ordaindutia  
guztia ahalegiña.

Lotsagarri zan ikuskizuna  
Urkisten<sup>11</sup> erromeria  
esku gogorak jausten ziran  
gaztearen bizkarrean.

Orduen herrizain izan ziranak  
han egozan bazterrian  
esa(n) eikian ze ez zegoala  
agintaririk herrian.

Udaberrie aurrean dogu  
aurten segun etxuria<sup>12</sup>

landetan agiri dira  
ugari lora zuriak.

Batzuek "maiton"<sup>13</sup> jakela izena  
besteak "margaritiak"<sup>14</sup>  
azkenengua izango dala  
daukat neuk be eretxia.

Bertso pare bat  
honeik bere  
deuke ondo merezia  
gauza ederra ezta izan eta  
sari barik lan egitia.

Fraka barri ta abarka opa  
boto orde baserriak  
etzerik etze ibili dira  
Jangoikoaren izenean.

Boto ordeko sariak hartzen  
andratxo bi joan dira  
errezo dan lez iskindu<sup>15</sup>  
eske Arregiko konfiterira.<sup>16</sup>

Andratxo horreik barriz etzera  
ezer barik joan dira  
ez dago txarto etxoten dana  
horreik emonen begira.

**Iturria:** Zeanuriko Basilio Pujana bertsolariak gerraostean egindako bertsoak, Simona Intxaurre andrearengandik jasoak.

**Azalpena:**

Basilio Pujana (Zeanuri, 1913-Zornotza, 2005), bertsolariaren lana da "Erremate zikina" izenaz ere ezagutu izan den bertso sorta. Bertso hauetan Zeanurin, Basilio gaztea zela, herrian bizi zen egoera politikoaz dihardu. Pentsamendu politiko bi agertzen dira elkarren aurka aurrez aurre: abertzaletasuna eta ideologia karlista. Urkistako erromerian izandako borroka eta han egondako eta orduko agintarien utzikeria azpimarratzen da. "Maiton"ak, alde batetik, eta "margaritiak", bestetik, boto bila dabilta baserriaren gogo eta botoa erosteko helburuarekin.

3. *Goizean Parisen*

Goizean Parisen  
gaubean Parisen  
Parisko kale luzea  
hauze kaliau pasau ezker

<sup>9</sup> norainokoa

<sup>10</sup> gaztelaniazko 'gestora'

<sup>11</sup> Zeanuriko auzo baten izena: Urkista (**urkiste**, ahoskatuta)

<sup>12</sup> itxuraz, itxura baten.

<sup>13</sup> maiton: "margarita" taldekoen aurkako taldea

<sup>14</sup> margarita: karlisten aldeko taldea

<sup>15</sup> eskaini

<sup>16</sup> Zeanuriko Plazan, Arregian, konfiteria bar zegoen.

atzeko zaldie neurea.

**Iturria:** Kepa Perez Urraza (Arkulanda auzoa, Zeberio)

**Azalpena:**

Albokarekin jotzen dan kanta. Antza, kanpotar bat Zeberio aldera etorri eta apostu bat egin zuen bertako albokari batekin: ezetz pasatu Pariseko kalerik luzeena, zaldi ganean, albokea jotzen gelditu barik. Jokoan, zaldia eta mandoa zeuden. Hark ez zekiena da alboka jotzeko arnasa sudurretik hartu eta ahotik botatzen dela, jakinez gero, ez dagoela arazorik luzaroan jotzeari ekiteko. Joan eta egin. Pariseko kaleetan zehar kanpotarrak, postura galtzeko arriskuan ikusi zuenean zera egin zuen: Esku batekin albokaren atzeko adarra tapatu eta bestearekin, sudurra estutu eta zarratu. Orduan, albokaria, ito beharrean, zalditik jausi eta bertan hil zen. Koplok albokariaren gomutaz eginda daude eta Arratiako etxe askotan ezaguna da.

*4. Neska graziosa batek Dimako herrian (Zortzi nobio)*

Neska graziosa batek  
Dimako herrian  
zortzi nobio ein ditu  
hila bi t'erdian.  
Bederatzigarrena  
zesteru tristia  
zu malezie sartzeko  
oindo<sup>17</sup> ni gaztia.

Bata da kotxero ta  
bestia letxero  
anajiak dire ta  
Luxe ta Josetxo.  
Ondiño be falta 'ire  
hiru mutil majo  
Migel eta Turebio,  
Franzisko Egiraungo.

Bi dire jenaruak<sup>18</sup>  
beste bat ehulia  
horreiri ez itxi Petra  
ez bazara lelia.  
Badakigu Petratxu  
zarena listia  
zu malezie sartzeko  
oindo ni gaztia.

Hogeta lau urte ta  
nobiet ezezkoa  
ostera be egin beaku  
gogoti zestua.  
Petra zuk pentseu arren

zuk ni ixtea  
geur goixian hartu dot  
nobien kartia.

Neskakaz fietan danak  
gaurko egunian  
sarri eukiko ditu  
frakak belanbian.  
Mesede eskatu nuntsun<sup>19</sup>  
gizonen antzian  
zein dozun gogokoa  
guztioeren<sup>20</sup> artian.

Batemat<sup>21</sup> izingo 'zu<sup>22</sup>  
zeure bihotzian  
Jaunak sartu zaizala  
Zeruko atian.

**Iturria:** Eduarda Bilbao (Arantzazun jasoa)

**Azalpena:**

Zortzi nobio egin ditu gure Dimako neskatxiak, baina ematen du Laukizko "Ehulia" bertsolariaren bertsoen antza handia dutela. Kanta honetan barregarri itxi gura da neska ez baita hori patxadazko neskearen jarrera. Sexistak ditugu hitzak emakumenganako tratamenduan esaten duenean ezin dela beraietaz fidatu. Barregarria eta krudela da. Garaiko lanbide desberdinen birpasaketa ere egiten da: jenaru, zesteru, letxeru, ehule...

Hona hemen beste hiru bertasio desberdin.

**2. BERTSIO ORIGINALA**

*(Jose Mariano Barrenetxeak jasoa)*

Eustakio Larrabeiti Trabudua "Eulea" (Begoña, 1847-Galdakao, 1936). Bertsolari ospetsua, Laukizen ezkondua eta handik Galdakako Bengoetxe auzoko Trobika baserrira bizitzera etorria. Geroago, Urreta auzora bizitzera joan zen hil arte. "Andra

Mari Taldea 40 urte kantuz eta dantzaz", 1995eko liburuan Eustakio Olea esaten den arren, egileak, hau da, Jose Mariano Barrenetxeak (Zer aldizkaria, 2000ko uztaila), baieztatzen du "Tomas Garai jaunari nik ondo artu (nion), Eustakio "Eulea" zen, ez Olea".

**ZORTZI NOBIO ETA ZORTZI AMODIO**

Neska polit bat jagok Laukizko errien  
zortzi nobio jozak urte bi t'erdien  
zortzigarrena dauko inoizko larrien

<sup>17</sup> hondino, oraindik

<sup>18</sup> jenaru: jornalera (?)

<sup>19</sup> neutsun

<sup>20</sup> guzti horreen

<sup>21</sup> baten bat

<sup>22</sup> dozu

ez ibili baziren fineza garbien.

Lenengo nobioa zalako beroen  
mutil galanta baina bekoki pardue  
aregaz artu baneu neure estadue  
orain egongo nintzen ondo ezkondu.

Bigarren nobioa zan zapatarie  
kojue izan ez balitz konsolagarrie  
neuk bere banituen orratza ta arie  
baina eneban gure nik zapatarie.

Irugarren nobioa zala alargune  
bazter askon jaube ta erederu jaune.  
Ak bere euki ez baleu etxebete ume  
egie da zeozer egingo gendune.

Laugarren nobioa gauean zan joaten  
gelako bentania koska koska joten  
aurreko jo ta atzera urten  
ori bai, Josepatxo, sarri egin zeunsten.

Bosgarren nobioa señor Eusebio  
egunian peseta bi daukoz diario  
axe izango neunke inor baino obago  
berak gure baleu neu konforme nago.

Seigarren nobioa Eustakio eulia  
fraka zar inñuxente koitedu pobria  
ik bere bainduen ezkondu guria  
baina eragin eunstan erretiradia.

Zazpigarren nobioa zan barrenderue  
irabazi eiten eban bastante dirue  
ak bere euki ez baleu zurie burue  
beste bat izango zan neronen asmue.

Zortzigarren nobioa Jose auzokoa  
amazortzi urteko mutil ditxosua  
gorputz ederra eta mutiltxo majua  
zeuk izan bear dozu neure esposua.

Ni zure lengusu ta zu nire lengusin  
ibili zaitte ortikan ixiltxo beinepein  
badakit zabizena kanpotik esaten  
despeidatu nozula bentanaren baten.

Zu orain ibilteko olakoak esaten  
ni zure bentanara enintzen joaten  
amaika demoniño bajagok munduen  
Josepa lengusiñak engañau ninduen.

Galdakaoko Bengoetxe auzoko Tomas Garai jaunak  
kantatuta. Jose Mariano Barrenetxeak jasotako  
"Eulea"ren bertso papeletako atal batzuk:

Neska polit bat dago Lumoko partian  
zazpi nobio ditu ille bi t'erdian,

Lenengo nobioa Eustakio "Eulea"  
iñozente koitedu fraka zar pobrea,  
arek be euki euen ezkondu gurea  
baia laster emoeutsien erretiradea.

Bigarren nobioa Jose euzokoa  
amazortzi urteko mutil ditxosoa,  
amazortzi urte ta emeretzi etze,  
Jose euzokoagaz ezkondu leitike.

### 3. BERTSIOA (*Asier Legarretak jasoa*)

Uribe-Kostako lekukoan (Mateo Sagasti, Migel  
Larrauri, Felisa Otazua eta Maria Luisa Otazua)  
bertsioak bateratuaz Asier Legarretak moldatutako  
bertsioa (ik. *Euskerazaintza* aldizkaria 33. zenbakia,  
1995. urtea, 60. orria).

#### ZORTZI NOBIO ETA ZORTZI AMODIO

Neska politte dago Laukizko errien;  
zortzi nobio ein deittuz urte bi t'erdien.  
Ez ibil bazan beti fineza garbien:  
zortzigarrena deuko inozko larden.

Leelengo nobioa ei zan kuberue,  
mutil galanta baina bekoki pardue.  
Agaz artu banendun neure estadue,  
orain egongo nintzen ondo ezkondu.

Bigarren nobioa zan zapatarie;  
koxoa ixen ezpaltiz konsolagarrie.  
Neupere banittuzen orratza ta arie,  
baina enendun gure nik zapatarie.

Irugarren nobioa dogu alargune,  
baztar askon jaubie, erederu jaune.  
Euki ezpazittuzen etze bete ume,  
egie da zeozer egingo gendune.

Laugarren nobioak falta deu andrie,  
alargune da eta errentadorie.  
Gizon galanta da ta diruen jaubie,  
alargun aberatsak neu gure naudie.

Bosgarren nobioa dogu Eusebio;  
egunen pezeta bi deukoz diario.  
Berau ixengo neuke inor baino obago;  
berak gure banendu ni konforme nago.

Seigarren nobioa Eustakio "Eulie",  
prakazar inuzente, koitedu pobrie.  
Euki zendun zuk nigez ezkondu gurie,  
baina eragin neutsun erretiredie.

Zazpigarren nobioa dogu Eugenio;  
ari bere ixen neutsen ainbet amodio.

Agaz ezkontzearen larga Eustakio;  
ara emen non deuketan ainbeste nobio.

Zortzigarren nobioa Jose euzokoa,  
amazazpi urteko mutil ditzosoa.  
Gutziz zagoz neugana amodiosoa  
zeuk ixen berko dozu neure esposoa.

Zortzi nobio eta zortzi amodio;  
Josepa akorda zaittez nor dan Eustakio.  
Amaika demonina bajagok munduen,  
Josepa leengusinek engaina nenduen.

Egin esamiñea zeatz eta artez;  
joan al zara eta konfesatu zaittez.  
Nik parkatuten deusut neure borondatez;  
inor engaina barik ibili zaittekez.

Zortzigarren nobioa Jose euzokoa,  
amazazpi urteko mutil ditzosoa.  
Gutziz zagoz neugana amodiosoa;  
zeuk ixen berko dozu neure esposoa.

Abadeak eitteko elixatik geittu,  
Bituritik papelak ekarriak deittu.  
Papelok koste dire iru ogerleko;  
Josepa presta zaittez orrek pagateko.

Negu partien orain benta deu aize otzak;  
elixa asko berotu neskazar birrotxak;  
agur orain Josepa, ez nago zuretzat!

#### *4. BERTSIOA*

(**Jon Aurrek** jaso Txikitone baserrian, Lezaman,  
eta "Hiru Truku II" proiektuan argitataratua 1997.  
urtean)

#### *ZAZPI NOBIO*

Lelengo nobioa Jose auzokoa,  
zeuk izan beharko dozu neure esposoa.

Bigarren nobioa zala Usebio,  
egunean peseta bi daukoz diario.

Hirugarren nobioa zala Ujenio,  
neuk bere euki neban hainbat amodio.

Laugarren nobioa zala kuberoa,  
mutil galanta baina bekoki pardo.

Bosgarren nobioa zan zapataria,  
kozoa izan ez balitz konsolagarria.

Seigarren nobioa Ustakio ehulea  
prakazahar inozente koitedu pobrea.

Zazpi nobio daukodaz urte bi t'erdian  
zazpigarrena daukat inozko larrian.

## 5.ZERRARIEK, LAPURRETXEKO ZERREA

Igorrera heldu dira  
sudito<sup>23</sup> alemanak  
atoan txikertuteko  
Arratieko egur danak.

Zigueñalak apurtute  
zerrak dagoz geldi,  
galdara zahar horreikaz  
ezin leiz ibili.

Horregaitik geitu (d)etsie  
Pedro Kortazarri  
elektrizidadearen indarra  
eiteko i ekarri.

Konformidade guztiegaz  
e(g)in daurie papela,  
Peru Bixerren aurrean  
kentzeko txapela.

Lapurretxek atxinetik  
handie famea,  
egurreri kenduteko  
bere lepoko lanea.

Lemoan lanea eta  
Igorren pañue,  
Rikardoren soloan  
e(g)in daurie dañue.

**Iturria:** Ander Gorospe (Dima)

### **Azalpena:**

Kanta hau *Anaitasuna* aldizkariaren Arratiarako gehigarrian argitaratu zen lehen aldiz 1957ko maiatzean. Bertan esaten denez "Moret" ezizena eukan batena omen zen eta herriak 1920 inguruan kantatzen zuen legez jaso ziren. Jakin dugunez, Berasaluze abizeneko igorretarra dugu "Moret" koblakaria.

Hona hemen 1957ko idatzizko bertsioa. "Lapurretxe" izeneko zerraz ari da, baina ez dakigu gauza handirik horren gainean. Teknologia alemaniarraz hornituta zegoen arren, antza, matxuraren bat zeukala-eta ez zebilen zerra hori, eta Pedro Kortazarrek konpondu behar izan zuen. Igorre eta Lemoa herrien arteko adar jotzea ere ikus liteke azken ahapaldian.

*Ruper Lekuek 1978an jasoa. Igorre*

Serra monte u ditu  
sudito alemanak  
ensegida llebateko  
Arratiako egur danak

Sigurra apurtute  
serrak dagoz geldi  
guldera zahar haregaz  
ezileiz ibili

Ensegida abisautze  
Peru bizerreri  
elektrizidaden indarra  
egin dela ekarri

Konformidade guztiegaz  
ein deurie papela  
sudito alemanentzat  
izinde bai pena.

Lapurretxek euki deutso  
haundi famea  
egurreri kenduteko  
lepoko lanea.

Igorren famea eta  
Lemoan pañua  
Rikardoren soloan  
ein deurie dañua.

### *1957ko idatzizko bertsioa*

Serrak monte u dituz  
sudito alemanak,  
ensegida ebateko  
Arratieko egur danak.

Zigueñalak apurtute  
serrak dagoz geldi  
galdara zahar horregaz  
ezin leiz ibili.

Ensegida abisau (deu)tsie  
Pedro Kortazarri,  
elektrizidadea(re)n inderra  
e(g)in deiela ekarri.

Konformidadea eginde  
e(g)in deurie papela  
sudito alemanentzat  
ixin de arpela.

Lapurretxek euki euen  
handie famea,  
egurreri kenduteko  
ardien lanea.

Igorren lanea eta  
Lemoan 'pañue'.  
Rikardoren soloan  
e(g)in deure handie 'dañue'.

<sup>23</sup> gaztelaniazko 'súbdito'

## 6.2. Kanta alaiak

### 1. *Ai, Peru Peru zu beti arpela!*

Ai, Peru Peru Peru zu beti arpela!<sup>24</sup>  
sarri izango dozu arkondara zaharra.

Baserriko mutila kontsolagarria  
kolkoan arto zati ikaragarria.

Arkondara agirian frakaren zuloti  
eta txapel txatala belarri ondoti. (bis)

Triala lala lala lalara (bis)

**Iturria:** Florentino Uriarte (Zeanuri)

#### **Azalpena:**

Itxura trakets eta zarpaila duen Peru izeneko baserri-  
mutil baten deskribapena: alkandora zaharra, fraka  
zulatuak, txapel haustua... Baserritar gixajoaren gainean  
egindako kanta barregarria.

### 2. *Aitite ta amama basora joan dira*

Aitite ta amama  
basora joan dira,  
azkorea galduta  
hasarratu dira.

Tira ta tira  
konponduko dira,  
tira ta tira  
hasarratu dira.

**Iturria:** Josefina Uriarte (Etxebarri etxea, Bedia)

#### **Azalpena:**

Pertsona zaharraren gainean egindako kanta  
barregarria. Nagusiek euren ahalmena gutxitu eta  
galtzen dihokiela jakina da, eta hain zuzen, holako  
egoera baten sorturiko haserreraren kontura egiten da  
barre hemen.

### 3. *Aramotzetik Garamendira (1)*

Aramotzetik Garamendira,  
tximista baten antzean,  
miru zuriak igaroten dau  
oilandatxuen atzean.

Atso urdinak entzuten ditu  
haren txistuak aidean<sup>25</sup>  
kurra ta kurra solora doa  
beren oiloen atzean.

<sup>24</sup> alperra, alferra.

<sup>25</sup> R. Lekueren bertsioan, etxean

Atso urdinak, hasarraturik  
negarrez dino bidean:  
Txite guztiak eroan deustez,  
bata bestean atzean.

Miru zuriak erpea zorrotz,  
pikua zerbait makurra,  
erroteak lez urundu deuz  
oilandatxuen hazurrak.

Miru zuriak jan dauzenezan<sup>26</sup>  
oilandatxue ta hazurrak<sup>27</sup>  
hegazka doa laino batera  
ipar-haizean antzera<sup>28</sup>.

**Iturria:** Ander Gorospe (Dima) eta Ruper  
Lekue (Igorre)

### *Aramotzetik Garamendira (2)*

Aramotzetik Garamendire,  
tximista baten antzian,  
miru zuriak bajatu ein de  
oilandatxuen atzian.

Olaindatxue pio ta pio  
atso urdine atzian,  
miru zurie hegaizka doia  
ifer haizia hartzian.

Miru plagia<sup>29</sup>, erpia zorrotz  
pikua erdiz makurre  
errotea lez urunduten deu  
oilandatxuen hazurre.

Miru plagia, erpia zorrotz  
pikua erdiz makurre  
errotea lez urunduten deu  
oilandatxuen hazurre. (bis)

**Iturria:** Florentino Yurrebaso Iruarrizaga (Ziarrusta  
auzoa, Dima)

### *Aramotzetik Garamendira (3)*

Aramotzetik Garamendira

<sup>26</sup> R. Lekueren bertsioan, deienean

<sup>27</sup> R. Lekueren bertsioan, oilandatxuen hazurre

<sup>28</sup> R. Lekueren bertsioan, ipar haizea hartzean

<sup>29</sup> plagia: deabrua bezalakoa, kaltegarria, madarikatua

tximista baten antzian  
miru zuria igeratziok  
oilandatsuen atzian.

Atso urdinek entzuten baitu  
haren txistuak etxean  
kurra ta kurra solora doa  
oilandatsuen atzean.

Atso gaixua hasarraturik  
negarrez dino bidean  
txite guztiak eroan deustez  
bata bestian atzean.

Miru zuriak erpia zorrotz  
pikua zerbait makurra  
errotialez urunduten dau  
oilandatsuen hazurrak.

Miru gaiztoa igeska doa  
Garamendi atxetara  
jan dabenian oilantsuen  
hazur da mamin guztiak.

MORALEJA (sic)

Kontuz ibili neskatil gazte  
gaurko mutil kirtenakin  
egunen baten arrapau saisten  
beren erpe zorrotzakin.

**Iturria:** Leontzi Aizpuru (Igorre, 1900-Iurreta, 1986), Gontzal Mendibilek jasoa.

**Azalpena:**

Kanta hau Anaitasuna aldizkariaren Arratiarako gehigarrian argitaratu zan lehen aldiz 1957ko maiatzean, eta bertan esaten danez "Moret" ezizena eukan batena ei zan. Lehen aldiz 1920an kantatu ei ziren. Jakin dogunez, Berasaluze abizeneko igorreztarra dugu "Moret".

Kepa Junkera musikari ospetsuak ere "Etxea" izeneko proiektuan sartu zuen abesti hau 2008an era honetan:

*Miru Zuria (4)*

Aramotzetik Garamendira  
tximista baten antzean  
miru zuriak igaroten dau  
oilandatsuen atzean.

Atso urdinak entzuten ditu  
haren txistuak etxean  
kurra ta kurra solora doa  
beren oiloen atzean.

Atso urdinak hasarraturik  
negarrez dino bidean  
txite guztiak eroan deustez  
bata bestian atzean.

Miru zuriak erpeak zorrotz  
pikua zerbait makurra  
errotea lez birrinduten deuz  
oilandatsuen hazurrak.

Miru zuriak jan deuzenean  
oilandatsuen hazurrak  
hegazka doa laino batean  
ipar haizean antzera.

**Iturria:** Kepa Junkera. *Etxea-1* proiektua (2008. urtea)

Miru zuria txori harrapakariari egindako kantua da. Oilandatxo eta txita gaixoen babes gabekoen parean animalia gaizto eta maltzur legez aurkeztu du "Moret"ek hegaztia. Kantu honetan aipatzen diran Aramotz eta Garamendi izenak Arratia bailarako Igorre herri inguruko mendienak dira. Kantu oso ezaguna da gaur egun ere bertakoentzat.

Hona hemen 1957ko bertsioa:

*Aramotzetik Garamendira (5)*

Aramotzetik Garamendira  
tximista baten antzean  
miru zuriak igaroten dau  
oilandatsuen hartzean.

Atso urdinek entzuten ditu  
haren txistuek etxean,  
urra (e)ta urra solora doa  
bere oiloen atzean.

Hegazti txarrak erpea zorrotz  
pikue zerbait makurra  
errotea lez urunduten dauz  
oilandatsuen hazurrek.

Hegazti txarrak jan deienean  
oilandatsue hatzean  
pio (e)ta pio gorantza doa  
ipar-haxea hartzean.

**Iturria:** *Anaitasuna* aldizkaria (1957. urtea)

4. *Errotabarriko Erromaldo*<sup>30</sup>

<sup>30</sup> Erromaldo: Romualdo (onomastikoa)

Errotabarriko<sup>31</sup> Erromaldo  
harria pikatzen ei dago.  
Ai ai, ai-ai-ai-ai  
Errotabarriko Erromaldo.

Harria jira-bira dago,  
neguan ura ugari dago.  
Ai ai, ai-ai-ai-ai  
neguan ura ugari dago.

Pikau harria izan arren  
urunak ondo urten dau hemen.  
Ai ai, ai-ai-ai-ai  
urunak ondo urten dau hemen.

Zure urunak zer dauko?  
urun gitxi ta zahi asko.  
Ai ai, ai-ai-ai-ai  
zure urunak zer dauko.

Asto mando bi daoiz kortan  
ta beste bi dabiz zorrotan.  
Ai ai, ai-ai-ai-ai  
beste bi dabiz zorrotan.

**Iturria:** Florentino Uriarte (Zeanuri)

**Azalpena:**

Zeanuriko Errotabarri izeneko errotako errotaria zen Erromaldori eskaintako kanta honetan bere beharraren deskribapena egiten da: harria pikatu, garia eiho zahia eta hirina eginez, zorroetan bildu eta astoetan banatu...

#### 5. Fraisku galtzazahar

Fraisku<sup>32</sup> galtzazahar eta laguntza<sup>33</sup> neuria,  
zantzo bat egiteko jaukat unoria.

Neuk bere izan neban abilidada  
hasi barik bildurrez aligo<sup>34</sup> gorrian.

Fraisku galtzazahar eta laguntza neuria  
zantzo bat egiteko jaukat unoria<sup>35</sup>.

**Iturria:** Florentino Uriarte (Zeanuri)

**Azalpena:**

<sup>31</sup> Errotabarri errota Zeanurin dago, Otzerinmendiko kofradian, eta Arratia ibaiaren ondoan.

<sup>32</sup> Fraisku: Frantzisko (onomastiko zaharra)

<sup>33</sup> laguntzar izan behar duela ematen du.

<sup>34</sup> ailego: eztabaida, haserrea.

<sup>35</sup> umorea.

“Fraisku galtzazahar” izenekoaren gainean eraturako kantu honek izango du ziurrenez pertsonaia eta ekintza historikoren batekin erlazioa, baina ez dugu ezagutzen.

#### 6. Hasi Sarrikolandan, Gallarta goraino

Hasi Sarrikolanda(n),  
Gallartan goraino,  
hasi Sarrikolanda(n),  
Gallartan goraino  
hamaika neska zaharko,  
maitia, bajagok ondiño.

Erdi-erdiak dagoz  
arpelik galtzean,  
erdi-erdiak dagoz  
arpelik galtzean,  
hartu palu bet eta, maitia,  
banoa saltzean.

Zazpi saldu(ak) nebazan  
San Pedro goxean  
zazpi saldu nebazan  
San Pedro goxean  
txarriek jagoteko, maitia,  
txabola batian.

**Iturria:** Antonio Sagarna “Kariño” (Artaun auzunea, Dima)

**Azalpena:**

Neska zaharregaren oinarrituta egindako kanta barregarria. Gai topikoa da gizarteko baztertuen kontura barre egitea. Ikazkinak, abadeak, mozkortiak, zaharrak... Eta multzo horretan sartu behar dira, zalantzarik gabe, ezkondu gabeko andrazko zaharra. Leku-izenak, baliteke, Iurreta ingurukoak izatea. Adibidez, Gallarta izan beharrean hango mendi baten izena Gallanda delako.

#### 7. Ipiñaburu leku altuan, Undurragaren buruan

Ipiñaburu leku altuan,  
Undurragaren buruan  
ikezgiñagaz ezkontzen danak  
ez dau zentzunik buruan.

Abadearen lapikotxoa  
txikerra baina goxua,  
ikezginaren lapiko zarra  
handia baina bustua.

**Iturria:** Franziska Agirrezabala ("Sututze" baserria, Zeanuri) eta Karmelo Uriarte, (Ipiñaburu, Zeanuri)

**Azalpena:**

Herriko pertsonaia barregarrien inguruan egindako kantua: ikazkina alde batetik, bere beharragatik mendian isolaturik, ke artean, bizi den behargin beltza. Eta bestetik apaiza, hau ere beti beltzez jantzita baina beharrik egin barik inoren etxeetan gauza finenak jaten

ohituta. Ematen du garaiotan txarto ezkontzea baino hobe zela abade edo apaiz sartzea.

#### 8. *Ixedro Olabarriko Igertuburu*

Ixedro Olabarriko Igertuburu<sup>36</sup>  
txondorrek ei darabiz zoroen moduen.  
Ixedrok euki ebalaz zentzune buruen  
ez zoala sutuko txondorrik orduen.

Ixedro Olabarriko Igertuburu  
arbola ganean dago mozolloen moduen.  
Gaztaiña lau bokado daukola buruen  
Hola(ko) bokau gozorik ez dago munduen.

**Iturria:** Bitoria Artetxe ("Kamiñoa" baserria, Zeanuri)

#### **Azalpena:**

Zeanuriko Olabarri errotako (Otzerinmendiko kofradian) errotaria zan Isidro Pujana. Kanta honetan ikazginen ofizioarekin lotuta agertzen da. 1936ko Gerra aurreko urteetan Zeanurin antzezten ziren "antzerki lantxo"etan ere parte hartu zuen Isidrok.

Kanta hau barregarria da eta herrikoek asmatua dela esan daiteke. "Errotabarriko Erromaldo" aipaturiko kanta ere garai berekoa dugu. Eta herrikoen artean ezin dugu ahaztu Leona Ziarrusta pandero-jole eta abeslaria, Bitoria Artetxe gure iturri informatzailearen ama.

#### 9. *Txako ta txako*

Txakolin, txakolin  
txakolinek on egin.  
Txako ta txako  
txako ta txako  
txako ta txako  
txako ta txako  
txako ta txako,  
txakolin, txakolin  
txakolinek on egin.

Azunberdi zagi barrian  
kuartulu<sup>37</sup> t'erdi pitxerrian.

Txakolin, txakolin  
txakolinek on egin.

Txakolin, txakolin  
txakolinek on egin.  
Txako ta txako  
txako ta txako  
txako ta txako  
txako ta txako

<sup>36</sup> Igertuburu: Zeanuriko toponimo bat da, Igartua -egun desagertuta dagoen - baserriaren inguruan.

<sup>37</sup> kuartilo, likidoentzako neurria.

txako ta txako  
batzuk uju, besteak uju,  
ni ostondu ta zuk kuku.

Txakolin, txakolin  
txakolinek on egin.

**Iturria:** Ana Maria Etxebarria (Zeanuri)

#### **Azalpena:**

Lurrean makila bi gurutzatuta jarritz edo gurutze bat marrartzuz, hanka biekini batera jauzika eta kantuka egiteko olgeta.

#### 10. *Txakolin*

Txakolin, txakolin, txakoliñek on egin.  
Txakolinek emogo'tso Maritxuri zeregin.

Aurten merke, igez karu, ez da inportaduten.  
Txakolinek emongo'tso Maritxuri edaten.

Txakote, majote, txako-txako txakote.  
Txakote, majote, haraxe ta honaxe.

Peruxe, Maruxe, Peru, Peru Peruxe.  
Peruxe, Maruxe, haraxe ta honaxe.

Txako-txako, txako-txako, txako-txako txakote.  
Txako-txako, txako-txako, akabue dok hauxe.

**Iturria:** R. M. Azkuek jasoa (ik. *Cancionero popular vasco*)

#### **Azalpena:**

Txakolingileen kantua: ardogintzaren lanaz dihardu, beharraz, urteroko prezioaz... eta batez ere, txako eta txako, ematen duen martxaz. Umeen zentzune etxean entzune proiektuko Azkuek jasotako kanta hau ez dogu Arratian entzun lehenago.

#### 11. *Zapi ta zapi esanagaiti*

Zapi ta zapi esanagaiti  
ezin dot kendu katue,  
sekula bere ez dot ikusi  
honela neure burue.

Ai, Mari Migel nun don senargai hori?  
Ai, Mari Migel noz dok eztegue?

Zapi ta zapi esanagaiti  
ezin dot kendu katue,  
sekula bere ez dot ikusi  
honela neure burue.

Ai, Mari Migel nun don senargai hori?  
Ai, Mari Migel noz dok eztegue?

**Iturria:** Oso zabaldua eta ezaguna da Arratian.

**Azalpena:**

Ezkontzeko bezperatan dagoenaren mozkorra kontatzen da. “Zapi eta zapi” berbak erabilten dira katuari deitzeko eta urruntzeko. Baina beste katu mota hori, mozkorra, ez da aldentzen berbok esan arren. Egoera barregarri horretaz egiten da barre.

### 12. Zeanuritik Baraurik

Zeanuritik baraurik urteiten badozu  
Gorbeiera orduko damutuko jatzu. (bis)  
Eleuterioren txabolan  
gosea franko izango da  
baite bere egarrie,  
dalako gizon baragarrie.  
Eleuterio, Eleuterio, Eleuterio,  
Eleuterioren txabola.

**Iturria:** Bitoria Artetxe, “Kamiño” baserria (Zeanuri)

**Azalpena:**

Eleuterio Goikoetxea, Zeanuriko alkatea izan zen II Errepublikaren garaian, EAJ/PNV alderdiarekin. Bere agindupean egin zen Gorbeialdean abestian aipatzen den etxola edo txabola. Horrekin lotuta dago kanta barregarri eta alai hau, janari osteetan kantatzen dena.

### 13. Santa Ageda koplak zaharrak

Haizeak eta euriek  
atera deuskuz begiek  
hortxe goitxuen galdu ein doguz  
lukainka ta urdeiek.

Laño artean izarra  
erreka munan lexarria  
etxe hontako nagusi jaunak  
urregorrizko bizarra.

Hortxe behetxuen errota  
uruna ondo ehota  
etxe hontako etxe andrea  
ondo ta andra galanta.

Hortxe goitxuko landetan  
txoriak dabiz kantetan  
etxe hontako txikerrentxue  
amagaz dabil olgetan.

**Iturria:** Zeberioko Zubialde eskola (Kepa Perez Urraza)

**Azalpena:**

Santa honen egunean kantatzeko koplak dira hauek. Baserretatik joateko ohiturari eutsiz honako bertso bereziak kantatzen dira Zeberion. Koplak guztiak esker

onekoak dira, etxeko jauna, andra eta umea gorai patzen baitira. Koplak zaharretan ohi denez, bakoitzaren lehen zatian, lehen bi bertsoetan, naturaren aipamena egiten da eta bigarrenean lore poetikoa botatzen da.

## 6.3. Kanta erlijiosoak

### 1. Iñaki bizkaitarra (erlijioso-politikoak)

Iñaki, Jaungoikoak bidaldua  
ludian izatera,  
Josuren gudarien buruba!  
Batzarrak hautu zindun  
euzkotarren<sup>38</sup> zaindarizat:<sup>39</sup>  
Zeu zara zaindari eta<sup>40</sup>  
jaun onena guretzat.  
Iñaki entzun, arren, eiguzu  
ta gure opea hartu!

<sup>41</sup>Bihotza euzkotarra  
jaiotzatik damotsu:  
Zeuria da berea...  
baso, mendi, ibai, aldu...<sup>42</sup>  
zeru goitik, Deun Iñaki,  
lagundu<sup>43</sup> Euzkadi!

Jagoizu<sup>44</sup> Jaungoikoa,  
jagoizu<sup>45</sup> Lagi-Zarra  
arerioren aurrian zeuk egin da  
euzkotarra...  
gudian<sup>46</sup> sarturik,  
ezpatea hartuta,  
euzkotarren alde,  
donge arerio  
indar zerutarrez,  
zatitu osoro ta...  
zoriontsu  
Euzkadi beti izango da  
zeuk, Iñaki zainduta, zainduta!

**Iturria:** Simona Intxaurbe (Zeanuri) eta Jose Luis Bernaola (Dima)

**Azalpena:**

Azpimarratzekoa da lekuko honen jakituria kanta honen inguruan. Hemen jarri dugun bertsoa politikoa, abertzalea, ezezagunena bada ere, buruz zekizkien beste bi bertso gehiago: Bata originala, bere hitzetan “erderazkoagoa” dena: “Inazio gure patroia handia”.

<sup>38</sup> J. L. Bernaolak bizkaitarren

<sup>39</sup> J. L. Bernaolak zain deuntzak

<sup>40</sup> J. L. Bernaolak berba biok ez ditu esaten

<sup>41</sup> Hortik aurrerakoa, osorik errepikatu egiten da.

<sup>42</sup> J.L. Bernaolak uria

<sup>43</sup> J. L. Bernaolak jagon bai

<sup>44</sup> J. L. Bernaolak jagon bai

<sup>45</sup> J. L. Bernaolak jagon bai

<sup>46</sup> ludian jarri zen AK-37 diskaren karatulan

Bigarrena moldaketa garbizalea duena: *"Inazio gure zaindari haundia"*. Eta aipatutako politikoa, "Iñaki bizkaitarra".

Bizkaia eta Gipuzkoako patroia den Loiolako Ignazioren omenezko ereserkia Agustin Pascual Iturriaga hernaniar abadeak sortu zuen XIX. mendearen lehenengo herenean.

Harrigarria da, Pascual Iturriaga joera liberalekoa izanik, antiliberalek -geroagoko karlistak- hiru mende lehenago hildako santuaren ereserkia euren aldeko propagandatzat erabiltzea. 1822an bertan, barbarako, Gipuzkoan lagun bat atxilotu zuten San Inazioren aldeko bertso-paperak saltzearen, kantu haiek Konstituzio liberalaren aurkakoak zirelakoan. Baina handik laster, zaharrak berri. Karlisten ikur zena, jeltzale sortu berrien patroia bilakatu zen.

Frantses jatorridun martxa militar honen letra originala, ezagunena, *Inazio gure patroia haundia, Jesusen Konpainia fundatu eta dezu armatu...* gizartean guztiz sustraituta zegoen. Jendeak zuen santuarenganako debozio izugarria aprobetxatuz S. Aranek ideia politikoak zabaltzeko erabili zuen. Eta S. Aranek bizkaiera erabili arren, ez zion herri tradizioari jarraitu eta neologismoz josita dago. Hori izan liteke behar bada, kanta honek arrakasta ez izanaren arrazoiatariko bat.

Bilboko "Euzkeldun Batzokija" Elkartea fundatu eta urtebetera, 1895eko udan, egin zuen San Inazioren aldeko bertsoa. Agustin Pascual Iturriaga abadearen (sortzailea) letra epelegi eta desegoki iritzita, EAJko fundatzaileak beste bat asmatu zuen bere pentsamolde politikoari hobeto egokituta. Hori bai, kantuak bi izan ziren, bata bizkaieraz (BIZKAITARRA), gipuzkeraz bestea (EUKOTARRA).

Esandako moduan, 1895eko udan asmatu zuen Aranek Loiolako santuaren omenezko bertsoa. Eta jendaurrean lehenengoz urte hartako uztailearen 10ean kantatu zituzten, "Euzkeldun Batzokija"ren lehenengo urteurrenean. Ospakizuna Begoñako Basilikan egin zuten eta bertan abestu zuten kantua. (Begoñako *Berton* aldizkaritik jasoa, in <http://www.asapala.org>)

*Deun Iñakiren Ereserkia*  
(*Iñaki bizkaitarra, bizkaieraz Sabino Aranaren arabera*)

Oñatz-Loyola eta Likonatar Iñaki Bizkayaren zaindari deunari bizkaitarrak

Iñaki, Jaunguak<sup>47</sup> bidalduba  
ludijan izatera  
Josu'ren gudarijen buruba!  
Batzarrak autu zindun  
Bizkaitarren zain deuntzat.<sup>48</sup>

<sup>47</sup> Yainkuak

Zeuzara<sup>49</sup> zaindari ta  
jaun onena geurentzat<sup>50</sup>.  
Iñaki, entzun, arren, eiguzu  
ta geure opea artu!<sup>51</sup>

Bijotza bizkaitarrak<sup>52</sup>  
jayotzetik damotzu:  
Zeuria<sup>53</sup> da aberria...<sup>54</sup>  
baso, mendi, ibai, arru...  
zeru-gotik, Deun-Iñaki,  
jagon, ba<sup>55</sup>, Bizkaya!  
Jago-ixu Jaun-Goikua,<sup>56</sup>  
jago-ixu<sup>57</sup> Lagi-Zarra:  
areyo-aurrian zeuk agindu  
Bizkaitarra...<sup>58</sup>  
gudean sarturik,  
ezpatea artuta,  
bizkaitarren aldez,<sup>59</sup>  
donge ta areyua,  
indar zerutarraz<sup>60</sup>  
zatitu osoro ta...  
zori-ontsuba<sup>61</sup>  
Bizkaya beti ixango da,<sup>62</sup>  
zeuk, Iñaki zainduta!<sup>63</sup>

*Deun Iñakiren Ereserkia*  
(*Euzkotarra, gipuzkeraz, politikoa*)  
<http://brankal.blogspot.com/2009/07/inaki-deunaren-ereserkia.html>)

IÑAKI, Yainkuak bidalduba  
Ludian izatera  
Yosu'ren gudarijen Buruba,  
Batzarrak autu zindun  
Euzkotarren zaindaritzat.  
Zu zera zaindari ta  
Yaun onena guretatzat.

IÑAKI, entzun, arren eiguzu  
Eta gure emaitza artu  
biotza euzkotarra (bis)

<sup>48</sup> zaindaritzat

<sup>49</sup> zu zera

<sup>50</sup> guretatzat

<sup>51</sup> eta gure emaitza hartu

<sup>52</sup> euzkotarra

<sup>53</sup> zuria

<sup>54</sup> beria

<sup>55</sup> zain zazu

<sup>56</sup> Yaungoikua

<sup>57</sup> zai zazu

<sup>58</sup> euzkotarra

<sup>59</sup> euzkotarren

<sup>60</sup> zerutarrez

<sup>61</sup> zori-ontsuba

<sup>62</sup> Euzkadi

<sup>63</sup> Berriz ere errepikatzen da: Euzkadi

jayotzetik damazu  
Zuria da berria...

Baso, mendi, ibai, arru  
Zeru goitik Deun Iñaki,  
Zai zazu EUZKADI  
Zai zazu Yaingoikua,  
zai zazu Lagi-zarra,  
Areyo Aurrian zeuk agindu  
Euzkotarra...  
Gudean sarturik  
Espata artuta  
Euzkotarren alde  
Donge ta areyua  
Indar zerutarrez  
Zatitu osoro ta...  
Zoriontzuba  
Euzkadi beti izango da  
Zuk IÑAKI zainduta, EUZKADI.

*Inazio gure zaindari handia*  
(*Ereserki erlijiosoa*)

Hemen dago Simona Intxauberengandik (Zeanuri) jasotako bertsoa. Bere esanetan San Inazio "donostiarra". Honetan ikusten den aldaketa garrantzitsuena lexiko aldetik dator: bertso originaleko erdal kutsua duten berbak aldatuta baitatoz.

*Inazio, gure zaindari handia*

Inazio, gure zaindari handia!  
Jesusen Lagundia  
zutitu eta dezu armatu.  
Ez da ez etsairik jarriko zaizunik  
inolaz aurrean gaurko egunian  
nahiz betor Luzifer belkatzua  
utzirik inperua.

Zure Lagundia beti dabil durdada,  
fedetan da kadea da Jesus handia.  
Garaitu ditu zure Lagundiak etsaiak.  
Ez dauka fede ta ez dauka loria  
ez dauka bildurrik inongo aldetik.

Inazio hor dago  
beti indartsu dago  
eta Lagundia  
sukarrez betia  
guda-gudan erditik  
ikurrina zabalik,  
gau eta egun  
geuk guztiok  
bakea dezagun.

*Inazio, gure patroia handia*  
(*Ereserki erlijiosoa*)

"Inazio, gure patroia handia" bertso ezagunena "erderagoa" dela dio. Hemen jarri dugu konparatzeko Manuel Lekuonak erabilitakoa ("La marcha de San Ignacio" Examen métrico artikuluan, 1929, in [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)).

Ignazio, gure Patroia andia!  
Jesus'en Konpañia!  
fundatu eta dezu armatu.  
Ez da ez etsairik jarriko (sic) zaitzunik  
iñolaz aurrean gaurko egunian  
naiz betor Luzifer deabrua  
utzirik inperua.

Zure soldaduak dirade aingeruak  
zure Gidaria da Jesus andia.  
Garaitu ditu zure Konpañiak etsaiak.  
Ez dauka fedeak, ez, kristau nereak,  
ez dauka bildurrik inongo aldetik.

Ignazio or dago  
beti ernai dago  
armetan jar'ia  
dauka konpañia  
txispaz armaturik  
bandera zabalik,  
gau ta egun  
guk guztiok pakea dezagun...  
beti gau ta egun...  
gau ta egun.

*2. San Martin esaik bat!*

San Martin esaik bat!  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik bi!  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik hiru!  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik lau!  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik bost!  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik sei!  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik zazpi!  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik zortzi!  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik bederatzi!  
Bederatzi ordenaduak  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik hamar!  
Hamar Mandamentuak  
Bederatzi ordenaduak  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak

Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik hamaika!  
Hamaika mille aingeruak  
Hamar Mandamentuak  
Bederatzi ordenaduak  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

San Martin esaik hamabi!  
Hamabi Apostoluak  
Hamaika mille aingeruak  
Hamar Mandamentuak  
Bederatzi ordenaduak  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi sakramentuak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak Kristoren llagak  
Laurek ebangelistek  
Hirurek hiru eternidadeak  
Erromako altara santuek bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

*\*Deabruak orduan:*

-San Martin esaik hamahiru!  
-Ez, Ez dok hamairu!  
Oilarrak joten jok munduan, aingerutxuak  
zeruan.

\* (Amaiera hau Juan M. Exebarriak jasoa Zeberion)

*AI, MARTIN ESAIK BAT!*  
(Gure moldaketa)

Ai, Martin esaik bat!  
Gure Jauna Bera dok bat.  
Berak salbauko gaiozak.

Ai, Martin esaik bi!  
Ola hon(e)tako mailuak bi.

Ai, Martin esaik hiru!  
Hirurek hiru errementariak.

Ai, Martin esaik lau!  
Laurek haxe, lur, su ta ur.

Ai, Martin esaik bost!  
Bostak adar-mendiak.

Ai, Martin esaik sei!  
Seirek seirek izerrak.

Ai, Martin esaik zazpi!  
Zazpi dira itsasoak.

Ai, Martin esaik zortzi!  
Zortzi zortzi zeruak.

Ai, Martin esaik bederlatzi!  
Bederlatzi hilebeteak.

Ai, Martin esaik hamar!  
Hamar gari-zakuak.

Ai, Martin esaik hamaika!  
Hamaika mille aingeruak.

Ai, Martin esaik hamabi!  
Hamabi errotariak  
Hamaika mille aingeruak  
Hamar gari-zakuak  
Bederlatzi hilebeteak  
Zortzi zortzi zeruak  
Zazpi dira itsasoak  
Seirek seirek izerrak  
Bostak adar-mendiak  
Laurek haxe, lur su ta ur  
Hirurek hiru errementariak  
Ola hon(e)tako mailuak bi.  
Gure Jauna Bera dok bat.  
*Berak salbauko gaiozak.*

Eta esan eutson deabruak orduan:  
Martintxu, esaik hamairu!  
Ez, ez dok hamairu!

**Iturria:** Lehengoa da jatorrizko bertsoa, Bitoria Artetxe zeanuriztarrarengandik jasoa. Bigarrena, geuk moldatutakoa da. Etno-ipuinetan eta euskal mitoan oinarritutako moldaketa egin da.

#### **Azalpena:**

Mitologiako ipuin batzuetan baserritarrek beharrian larriren bat zeukatenean, deabruari berari ere eskatzen zioten laguntza: maldizioak esan egiten zituzten deabruaren izenean euren arima arrisku gorrian jarrita. Abesti hau, holako tratu baten ostean, arima berreskuratzeke, hau da, bide onera egiteko kantatzen zen. "San Martin esaik bat!" berriz ere bide onetik egiteko kantatzen zen. Hala eta guztiz ere, deabruak beti tentatu egiten du eta, hamairugarrena? itauntzen dio

Martini. Eta hark "Ez dok hamairu" esaldi ospetsua erantzun.

## **6.4. Maitasun kantak**

### *1. Ama zuriak neuri*

Ama zuriak neuri ondotik pasaute  
ez dost jamonik<sup>64</sup> egin, maitia, burue bueltaute.  
Ama zuriak niri ez jamon eiteko  
ze palazio deuko, maitia, zuri emoteko.

Ama zeuriak neuri bidian topeuta  
ez dost agurrik egin, maitia, burua bueltauta.  
Ama zeuriak neuri ez agur eiteko  
ze palazio deuko, maitia, zeuri donatzeko.

Palazio eder bat hatxaren ganian,  
palazio eder bat hatxaren ganian,  
etxako (ez jako)sartzen, maitia, ez dabilenian,  
etxako auririk sartzen, maitia, aterri danian.

Badakit zagozena kortina artian,  
badakit zagozena kortina artian,  
nere bersoak entzuten, maite, kamisa hutsean,  
nere bersoak entzuten, maite, kamisa hutsean.

Oillo gorri polit bat galdu jaku guri,  
oillo gorri polit bat galdu jaku guri,  
seineleak onak dituz, maitia, agartu al badi<sup>65</sup>,  
seineleak onak dituz, maitia, agartu al badi.

Burue pardo-pardo, buztena beillegi,  
burue pardo-pardo, buztena beillegi,  
haren arrautzatxuak, maitia, bolea dirudi,  
haren arrautzatxuak, maitia, bolea dirudi.

Txakur haundi polit bat galdu jaku guri,  
txakur haundi polit bat galdu jaku guri,  
seineleak onak dituz, maitia, agartu al badi,  
seineleak onak dituz, maitia, agartu al badi.

Lepoa pardo-pardo, buztena beillegi,  
Lepoa pardo-pardo, buztena beillegi,  
iruntziko laukela, maitia, hogeita libra bi,  
iruntziko laukela, maitia, hogeita libra bi.

<sup>64</sup> jaramonik

<sup>65</sup> al baledi edo ahal baledi

**Iturria:** Bitoria Artetxe (Zeanuri) eta Miren Manterola (Zeanuri)

**Azalpena:**

Abesti hau kanta ezagun biz osatuta dago. Lehen hain ezagun den “Ama zuriak neuri” maitasun kantua da. Lehenagoko ezkontzetan gurasoen bedeinkazioa behar-beharrezkoa zen. Batez ere neskaren amaren borondatea irabaztea ezinbestekoa zen. Horretarako eskaintzen dizkio hain zuzen, palazioa. Baina eskaintza barregarria suertatzen da etxea haustuta dagoela frogatzen denean. Hala ere, neska han dago kortina ostean izkutatuta, maiteminduta, bere bertsoak dastatzen erdi biluzik, lentzeria hutsean. Erreferentzia erotiko lotsagabekoa garaiontzat!

Eta bigarrena, “Oillo gorri polit bat” alai, barregarria eta umeentzako. Oiloa eta txakurra galdu direla-eta, euren deskribapena egiten da, koloreen zehaztasun argiak eginez. Oiloa animalia maitagarri legez aurkezten bazaio ere, txakurrekin kontuz ibili behar dela erakusten zaio, zeren gai baita 22 libra okela jateko. Umetxo batek daukan pisua gutxi gorabehera. Ohar bedi irakurlea, errimak behartuta, azken perpausaren sintagman gertatzen den bortxa: *hogeita bi libra* esan beharrean, *hogeita libra bi* dio.

Hona hemen kanta honen barruko zati bat, bera bakarrik, koplea lez kantautu jaso.

*Oiloa faltau jako*

Oiloa faltau jako  
Mari Mondrongori  
seinaleak badituz  
agartu baledi  
buztena mardo-mardo  
bulera beilegi  
haren arrontzatxuek  
bolea dirudi.

**Iturria:** Juanjo Respaldiza (Orozko), bere amama zeberioztarrarengandik jaso.

2. *Garia saltzen nengoenean*

Garia saltzen nengoenean  
Donostiako kallean  
dama gazte bat etorri jatan  
garia zegan egoan.  
Batzuentzako hamazortzian  
zuretzat hamabostean  
ta hamabostean gure ezbadozu  
laztantxo baten trukean,  
ta hamabostean gure ezbadozu  
laztantxo baten trukean.

\*Porruek saltzen nengoenean  
Ai, Arteako ferian

dama gazte bat etorri jatan  
porrue zegan egoan.  
Batzuentzako hamazortzian  
zuretzat hamabostean  
ta hamabostean gure ezbadozu  
mosutxu baten trukean,  
ta hamabostean gure ezbadozu  
mosutxu baten trukean.

<sup>66</sup>Zaldiek saltzen nengoenean  
Zeanuriko ferian  
dama gazte bat etorri jatan  
zaldie zegan egoan.  
Batzuentzako hamazortzian  
zuretzat hamabostean  
ta hamabostean gure ezbadozu  
zirritxu baten trukean,  
ta hamabostean gure ezbadozu  
zirritxu baten trukean.

**Iturria:** Silvestre Elezkano “Txilibrin” (Igorre)

**Azalpena:**

Maitasun kanta honek argi eta garbi, “Perretxikotan nenbilenean” eta “Paskoalatxu” balada ezagunen zatiak ditu.

*Perretxikotan*

Perretxikotan nenbilenean  
Mendiolako basoan  
dama gazte bat aurkitu neban  
elorri baten ondoan.

Gaztea nintzan zoroa nintzan  
jarri nintzakoan alboan  
amantaltxua zabaldu eta  
hartu ninduen altzoan.

Itaundu neutsan: Nongoa zara  
damatxo bihotzekoa?  
Jakizu ni naiz pobreen ama  
Birjiña Arantzazukoa.

Uhiak (hortz-hobiak) bere txantxarrak  
janda  
ez dabe osagilerik  
ohitura zaharrak galdu ziran da  
hobenak lotu bagarik.

Gaztea nintzan, zoroa nintzan  
itaundu neutsan men-menik:  
-Zergaitik zagoz, dama galanta,

<sup>66</sup> Guk geuk sortutako bertsoak dira

hain triste bakar bakarrik.

**Iturria:** Simona Intxaurbe (Zeanuri) eta Frantzizka Agirrezabala (Zeanuri). Jose Ramon Arbek jasoa. (Hiru truku II).

### *Paskoalatxu*

Paskoalatxu polita zara  
garria dozu liraina,  
ulea bere modako fina,  
ai, zeu neuretzat bazina!

Errezoi hori esan bazunstan  
leku sekretu batean,  
gariak eta zeu ta neu bere  
konpondu egingo ginean.

Beste batentzat hamazortzian  
zeuretzat hamabostean  
hamabostean gura ez badozu  
laztantxu baten trukean.

**Iturria:** Jon Aurrek Lezaman jasoa. (Hiru truku II)

### *3. Hamabietan senargei nintzen*

Hamabietan senargei nintzen  
ordu batetan ezkondu  
goizeko ordu bi santuetan  
alargun nintzan gelditu.

Nik hartu nauen sentimentua  
nik hartu nauen lotsia  
ordu beteko senarragaitik  
alargun gelditutzia.

Jaun Zerukoak emongo baleu  
zeru altuko giltzia  
ordu an nik be jakingo neuke  
nori zabaldu atia.

Neure aiteri, neure amari  
neure anai arrebari  
eta gaineko sekretotxu bat  
neure kutun maitiari.

**Iturria:** Eduarda Bilbao (Arantzazu). Labayru Ikastegia (MZIM)

### *Azalpena:*

Kanta ezagun biren nahasketa dagoela ematen du. Lehenengoa, lehen bi ahapaldiak, “Bart amarretan dontzella nintzan” kantu ezagunaren zati dira. Egun

berean (ordu beteko epean) ezkondu eta alargundutakoaren historia kontatzen da.

Azken ahapaldi biek ostera, ‘Aita Jainkoak egingo banindu’ kanta ezagunaren antza dute. Zera erakusten da bertan: Jaungoikoarenganako begirunea eta gurasoenganako errespetua dela lehenengo, maite denaren aurretik ere.

### *Bart amarretan*

Bart amarretan dontzella nintzan  
amaiketako senarra  
gaubeko amabi santuetarako  
gelditu nintzan bakarra.

Sentimentua, sentimentua  
andiagoa penea:  
ordu beteko senarragaitik  
alargun gelditutia.

**Iturria:** R. M. Azkuek jasoa Olaetan (Aramaiona, Araba). (Hiru truku)

### *Aita Jainkoak egingo banindu*

Aita Jainkoak egingo banindu  
zeruetako giltzari  
azken orduan jakingo neuke  
atea nori idegi.

Lehenengo aitari, gero amari,  
gero anai arrebari,  
ta azken orduan ixil-ixilik  
neure maite politari.

**Iturria:** Oso ezaguna eta zabaldua Arratia osoan.

### *4. Frantzie parteti*

Etorri nintzanean  
Frantzie parteti  
ama topadu neban (bis)  
etxian bakarrik.

Zer egiten dau<sup>67</sup> ama  
horrelan tristerik?  
Nobedade barriek (bis)  
entzun dodaz bai nik.

Ze nobedade entzun dau  
bai ama neuria

---

<sup>67</sup> berorikako tratamendua amagaz

ezkonetan zariala (bis)  
bai ene semia.

Nundikua dakazu  
seme, emaztia?  
Frantzie partekoa (bis)  
bai ama neuria.

Ez dot gure frantsesik  
hain gutxi errenik  
egin dodan promes hau (bis)  
konpridu biot<sup>68</sup> nik.

Ze promes dauko ama  
konpridu eiteko  
joan bidera eta (bis)  
andrea hilteko.

Ez da imposible<sup>69</sup> ama  
nik hori egitia  
joan bidera eta (bis)  
andria hiltia.

Anaia ez bada kapaz  
estudiantia,  
estudiantia ez bada kapaz(bis)  
anajia hartuixu.

Juanita jatsi zate  
zaldi horren ganeti  
sartu deitzuden puñela (bis)  
bihotzen erditi.

Ai, horren puñelarren  
puntiaren zorrotza  
ikusiek beste barik (bis)  
hilten deust bihotza!

Hamalau mando dodaz  
urregorriz kargaurik  
haik emongotzudez da<sup>70</sup> (bis)  
ni itxi bizirik.

Haik hartuko odaz<sup>71</sup> baie  
ez itxi bizirik  
lelengo<sup>72</sup> puñalkadan (bis)  
zehartau bagarik.

Abadea ekarrizu  
konfesaduteko  
neure arima tristia (bis)

konsoladuteko.

Abadea urrin dago  
eleixea urrinago  
horrelan ibilteko (bis)  
asti gitxi dago.

Zazpi izera dodaz  
odolez mantxaurik  
zortzigarrentxu honek (bis)  
naroa ni munduti.

Zeruen kanpak<sup>73</sup> dira  
ez dakit zergaiti  
igual izingo direz (bis)  
naure heriotzagaiti.

**Iturria:** Bitoria Artetxe (Zeanuri)

**Azalpena:**

Erromantze hau Bitoria Artetxe izan zenaren ahotik jasota dago. Honez gero hilda dagoen arren bere ondarearen zatitxo bati aurrerabidea emoten ahalegindu gara. Erromantzeak berez daukan dramatismoa, bertsio honetan hondino gehiago nabarmendurik gertatzen da mutil eta nesken ahotsen txandaketarekin.

Gaia Frantziatik dakarren emaztegaia ez dute etxean onartzen ez eta dote handienaren truke ere. Amaiera, XVII. mendeko epiko-liriko tradizionalak deitzen diren baladetan gertatzen den antzera, dramatismo tragikoz beteriko heriotza gertatzen da.

##### 5. *San Antonio Santu Handia*

San Antonio santu handia  
Urkiolako mendian  
Zeugana nator bihotz-bihotzez  
Gauza baten eskarian.

Illunetako gauzak nahi neukez  
Ipintia agirian  
Neskatxa batek zer darabilen  
Zeberioako herrian.

Diño berari kendu deusala  
Onura edo konduta<sup>74</sup>  
Bera bestela egongo zala  
Aspalditik ez konduta.

Ene Dominga bihotzekoa  
Ez hadi holan estutu  
Zeugaz ezkondu nahi ez deuenari  
Derrigorrean ez deitu.

Zeure onura galdu badozu

<sup>68</sup> behar dot

<sup>69</sup> sic.<sup>n</sup>

<sup>70</sup> eta

<sup>71</sup> dodaz

<sup>72</sup> lehenengo

<sup>73</sup> kanpai

<sup>74</sup> gaztelaniazko 'conducta'

Zeuk egin dozu pekatu  
Nik neuk zurerik ez deukat eta  
Kendu deutsuneri eskatu.

**Iturria:** Seberiano Lejarreta (Zeanuri)

**Azalpena:**

Neska gaztearen onura, birjinitatearen gehiegizko garrantzia azpimarratzen da. Beste inorekin lehenago egon izana arrazoi nahikoa da neska ez onartzeko, eta gainera gaitzat hartuta, bertsoak sortzeko. Zehatz mehatz botatzen ditu neskaren izena eta herria, zalantzarik egon ez dadin. Gizonezko formal harroputzaren jarrera baztergarritzat joko genuke gaur egun holako jokabidea.

## 6.5. Ume kantak

### 1. A, A, A, Ipiñako Bizkarra

A, a, a, Ipiñako bizkarra,  
Bizkaian da bakarra  
lur guztian ez bada.  
A,a,a lur guztian ez bada.

E,e,e, Ipiñan gura geunke  
bizi heriotza arte  
gero zeruaz truke.  
E,e,e, gero zeruaz truke.

I,i,i, ez dozu galdu gutxi  
ez badozu ikisi  
non garean gu bizi.  
I,i,i non garean gu bizi.

O,o,o, goian San Adrian dago,  
Santa Ageda gorago  
nagusi Santiago.  
O,o,o, nagusi Santiago.

U,u,u, hau dogu bizimodu  
guztion bizileku  
honen hurrungo zeru.  
U,u,u, honen hurrungo zeru.

**Iturria:** Karmelo Uriarte ("Angun" baserria, Ipiñaburu, Zeanuri)

**Azalpena:**

Bizkaiko Diputazioak XX.mendean, hogeigarren hamarkadan hain zuzen ere, sortutako auzo-eskoletako kanta da hau. Euskaraz irakasten zen bertan. Hauxe da bokalak ikasteko erabiltzen zen abesti didaktikoa. Ipiña, Santa Ageda, San Adrian eta Santiago, denak dira Ipiñaburu auzo-kofradiako leku-izenak.

### 5.2. Atxean motxean

Atxean motxean  
bestelakotxean  
xirrin xarran  
dominipan  
joan nintzen errotara  
topeu neuen erbi bet<sup>75</sup>  
jaurti neuntsen harri bet  
atera neuntsen ezkerreko  
begi gorri bet.

Txilimini kanpa,  
txilimini kanpa,  
txi txau!  
Nor dozu nobie?  
Txori buzten gorrie.

**Iturria:** Lorentza Aldape (Egiraun baserria, Dima)

**Azalpena:**

Olgetetako kideen artean aukeraketak egiteko erabiltzen den errezipitua. Atzamarrak gora eta behera mugituz eta aurrez dauden umeak seinalatuz esaten da.

### 2. Atzamarren kontutxua

Honek arrutzetxoa topau,  
honek ipini,  
honek gatza bota,  
honek probau,  
ta honek potolo-potoloak dana jan.

**Iturria:** Edurne Atutxa (Bernaola Behekoa baserria, Dima)

**Azalpena:**

Atzamarrekin egiten dan olgetarako errezipitua. Bost atzamarrak hartzen dira banazean beste eskuko atzamarrekin.

### 4. Bela, Bela Jaune

Bela, bela jaune,  
nondik aite jaune?  
Zeruetatik.

Zeruen zetan?  
Artoa garantan.

Artoa zetako?  
Oiloarentzako.

Oiloa zetako?  
Arrautzea eiteko.

Arrautzea zetako?

---

<sup>75</sup> bat

Morrokotearentzako.

Morrokotea zetako?  
Abadearentzako.

Abadea zetako?  
Meza emoteko.

Meza zetako?  
Aingerutxuen erdi-erditik  
zerure pasetako.

**Iturria:** Florentino Yurrebaso Iruarrizaga (Dima)

**Azalpena:**

Elizaren araei zor zaien errespetua irakasteko kanta. Umetatik irakatsi behar zaio umeari mezatara joaten, abadearentzako morrokotea eginez begirunea izaten...

#### 5. *Din-dan nor hil de*

Din-dan nor hil de?<sup>76</sup>  
Peru zapaterue.

Zer ein dau? Pekatu,  
auzoko txakurre urkitu,  
laba ganean beratu,  
labapean sikitu.

Hori baino e(g)in ez badau  
ein beha(r)ko jako parkatu.

**Iturria:** Edurne Atutxa (Dima)

**Azalpena:**

Animalienganako tratu txarrak ohikoa ziren lehenagoko sasoietan; adibidez, Peru zapatarriak txakurrari egiten dizkiona. Peru izen berezia, berez latinezko Petrus eta erromantzeko Pero izenetik datorrena, izen barregarritzat hartu izan da bizkaialdeko tradizioan.

#### 6. *Egun bolontena*

Egun bolontena  
ene laztana  
ez egin lorik basoan  
azeritxuak eroango zaitu  
erbia zarelakoan.

<sup>77</sup>Egun bolontena  
ene laztana  
ez egin berba basoan  
txakur handiak eroango zaitu  
katua zarelakoan.

<sup>77</sup>Egun bolontena  
ene laztana  
ez egin ez tul basoan  
katuzarrak eroango zaitu  
sagua zarelakoan.

**Iturria:** Maribel Gorostizagoiza (Zeanurin jaiio;  
Areatzan bizi)

**Azalpena:**

Lo-kanta honen bidez oihaneko edo basoko piztiei zor behar zaien errespetuaz irakasten zaio umeari.

#### 7. *Erregen Erregen*

Erregen Erregen timilitaiñe<sup>78</sup>  
bost intxur ta sei gaztaiñe.  
Apalazio<sup>79</sup> zaldune  
Hiru Erregeen egune.  
Zotzak eta paluek,  
Martin-zaharraren kontuek.

Martin-zaharrari eroan dotsez  
hiru oilanda katuek,  
haien hazurrek batu ezinik,  
harek dabizen saltuek!

Saltu te brinko,  
saltu te brinko  
Hiru Erregeen aurrean!

Erregen Erregen zaldune  
Hiru Erregeen egune.  
Hiru Erregeak batu gaituz  
limosnatxo baten bile.  
Zotzak eta paluek,  
Martin-koxoaren kontuek.

Martin-koxoari eroan dotsez  
hiru oilanda miruek,  
haien hazurrek batu ezinik,  
ibili dituz brinkuek!

Saltu te brinko,  
saltu te brinko  
Hiru Erregeen aurrean!

**Iturria:** Florentino Uriarte (Zeanuri)

**Azalpena:**

Erregen eguneko kanta: Ekialdeko Hiru Erregeek Jesusi Behetlemgo portalean egindako bisita gogoratzen

<sup>77</sup> Guk geuk sortutako bertsoak dira

<sup>78</sup> hitz dekoratibo honen funtzioa zera da: hurrengo bertsoaren azkenengo hitzarekin errima egitea.

<sup>79</sup> Latinez 'apparitio', Jesus Jaunaren Agerkundera -edo Epifania- dana herritarrek 'Apalazio' egin dute.

<sup>76</sup> da

du. Egun honetan umeek errolda egiten zuten diru, edo beste aginaldoren eske abesti hau kantatuz.

Beste bertsio batzuetan “Apalazio zaldune” legez da ezagun. Bertsio honetan baina, nahastuta ageri dira zenbait bertso barregarri Martin-koxo edo Martin-zahar pertsonaiekin. Honi ere katuak lehenengo eta miruak, txori lapurrak geroago ohostu dizkio.

Beste aldaera hau ere jaso dugu:

#### *Erregen Erregen*

Erregen Erregen talamontaña<sup>80</sup>  
zazpi intxur ta bost gaztaña.  
Haren ganean lau sagar  
nik bai altzoa zabal-zabal.

Erregen Erregen bialdu gaituz  
limosnatxu bet bi ule<sup>81</sup>.  
Zotzak eta paluek,  
Martin-lepoaren kontue.

Martinekoari eroan dotsiez  
hiru oilanda katuek  
haren hazurrek batu ezinik  
harek dabizen saltuek.

Txiribitaña<sup>80</sup>, Marimontaña  
hiru intxur ta lau gaztaña.

#### *8. Ez dago errotan harririk*

Ez dao errotan harririk  
neure hagine(k) lakorik.  
Neure haginek txikituko leukie  
txarri handi bet osorik.  
Ez dao errotan harririk  
neure hagine(k) lakorik.

<sup>82</sup>Ez dao Bizkaiaren gaztairik  
Gorbeiekoa lakorik.  
Jesarrialdi baten jango neukez  
oso-osorik gaztai bi.  
Ez dao Bizkaiaren gaztairik  
Gorbeiekoa lakorik.

<sup>82</sup>Ez dao munduen lagunik  
gure zekorrek lakorik.  
Bizitzea be emongo leukie  
lagun on-on bategaitik.  
Ez dao munduen lagunik  
gure zekorrek lakorik.

<sup>80</sup> onomatopeia honen funtzioa da hurrengo bertsoaren azkenengo hitzarekin errima egitea.

<sup>81</sup> behar dogule (dogula)

<sup>82</sup> Guk geuk sortutako bertsoak dira

*Iturria:* Mari Eli Olabarri (Areatza)

*Azalpena:*

Kanta tradizional honek indarra eta sendotasuna adierazten dizkigu. Gaztearen gosea asetzeari zaila da eta jateko asko behar da.

#### *9. Lehenengotxu hori*

Lehenengotxu hori  
punta meatz<sup>83</sup> hori  
beste guztien artean  
txikerra dok hori.  
*Lara la lara...*

Bigarrentxu hori  
punta meatz hori  
beste guztien artean  
nagia dok hori.  
*Lara la lara...*

Hirugarrentxu hori  
punta meatz hori  
beste guztien artean  
luzea dok hori.  
*Lara la lara...*

Laugarrentxu hori  
punta meatz hori  
beste guztien artean  
okerra dok hori.  
*Lara la lara...*

Bosgarrentxu hori  
punta meatz hori  
beste guztien artean  
lodia dok hori.  
*Lara la lara...*

*Iturria:* Zeberion jaso. Oso ezaguna Arratia osoan.

*Azalpena:*

Eskuko atzamarren deskribapenaren bidez umeak adjektiboaren esanahia ikasten du jolasten duen artean.

#### *10. Obabatxua lo ta lo (1)*

Obabatxua lo ta lo  
zuk orain eta nik gero,  
zauk<sup>84</sup> gura dozun orduen baten  
biok eingo dogu lo ta lo, aaa!

Neure laztana datorrenian  
zaldi urdinen ganian  
berrehun kaskabel urregorizko  
zaldiek ditu ganian, aaa! (bis)

<sup>83</sup> mehe, oso txiki eta meharra esanahia du

<sup>84</sup> zeuk

Neure laztana-laztango  
kalean negarrez hago,  
haren negarra gozoagoa da  
askoren barrea baiño!!!

Aitaite<sup>85</sup> dala zunzulunberde  
amama dala masuste,  
aite joan da Bituriera  
ama lepoan hartuteeee.

Aite etorri de Bitorieti  
ama bidian galdute,  
aitek topau dau ama kamaran  
gona gorriek jantziteeee.

Larrosatxuak bost orri dekoz  
kabiliniak hamabi,  
neure umiak gure deuen  
eskatu deiola amari.

**Iturria:** Bitoria Artetxe (Zeanuri)

*Obabatxua lo ta lo (2)*

Obabatxua lo ta lo  
nik orain eta zeuk gero;  
zeuk gura dozun orduren baten  
biok ingo (do)gu lo ta lo.

Obabatxua lo ta lo  
zuk orain eta guk gero;  
mutil handia haziko zara  
lolotxu egin ezkeru.

Gure txikitxu bihotzekoa  
aita ta amaren laztana;  
gau oso-osoan egiguzu  
lolo eder gura dana.

Obabatxua lo ta lo  
kanpoan iluntsu dago;  
hotza be handia egiten dau,  
hemen, barriz, bero-bero.

Gure txikitxu bihotzekoa  
laster zaitu loak hartu;  
ames gozo-gozoak egizuz  
eta goizean itzartu.

**Iturria:** Bitori San Anton Yurrebaso (Indusi auzo-  
kofradia, Dima)

**Azalpena:**

Goian erakutsitako Obabakoak lo-kantaren  
grabaketa bi egin dira. Lehenengoa, Bitoria Artetxe

<sup>85</sup> aitiba

Zeanurikoarena, 2006. urtean, eta bigarrena Bitori San  
Anton Dimakoarena, 2010. urtean.

Lo-kanta guztietan berbarik goxoenak esaten zaizkio  
umeari, izan litzakeen beldurrak uxatzeko. Berotasuna,  
ziurtasuna, babesa ematen zaio une oro.

Lehengo bertsioan ordea, badira ahapaldi bi ez  
datozenak guztiz bat gai orokorrarekin, barregarriak  
direlako: 3.a, aitiba eta amamaren ganean barre egin  
ondoren (aitaite dala zunzulunberde, amama dala  
masuste), ama lepoan hartuta Gasteizera bidaia egiten  
duela kontatzen da; eta 4.an, hurrengoan, etxeko  
kamaran, berriz, aurkitzen duela eta, gainera, gona  
gorria jantzita.

*11. Ogarabeiti dago*

Ogarabeiti dago  
Billaro buruen  
halango parajerik  
ez dago munduen. (bis)

**Iturria:** Maribel Gorostizagoiza (Zeanuriko Barazar  
baserrikoa, Areatzara ezkondua)

**Azalpena:**

Auzo baten gorespenerako kanta da hau, Ogarabeiti  
deituriko auzoaren gorespena, hain zuzen ere.  
Ogarabeiti Dima eta Zeanuri herrien auzo bat da. Muga  
etxeen erditik pasatzen delako. Elizaz, berriz, Areatzako  
San Bartolome parrokiakoa da.

*12. Sabin Sabintxu*

Sabin Sabintxu, erein iozu<sup>86</sup>  
eskutxuari,  
behin batari eta  
behin besteari.

<sup>87</sup>Ane Anetxu, erein iozu  
hankatxoari  
behin batari eta  
behin besteari.

<sup>87</sup>Mikel Mikeltxu, turet(u) iozu  
belarriari  
behin batari eta  
behin besteari.

<sup>87</sup>Leire Leiretxu, emon iozu  
eperditxuari  
behin batari eta  
behin besteari.

<sup>87</sup>Txomin Txomintxu, keinu eiozu  
begitxuari  
behin batari eta

<sup>86</sup> egiozu

<sup>87</sup> guk geuk moldatutako bertsoak dira.

behin besteari.

<sup>87</sup>Ines Inestxu, entzun iozu  
atzamarrari,  
behin batari eta  
behin besteari.

**Iturria:** Maribel Gorostizagoiza (Zeanuri)

**Azalpena:**

Umetxoari eskuak mugitzen irakasteko kantutxoa.

### 13. Txalo pin txalo

Txalo pin txalo, txalo-pin-txalo,  
katutxue mezmeru ganean dago,  
badago bego, badago bego  
zapatatxu barriari begire dago.

Txalo pin txalo, txalo-pin-txalo,  
txalo txalo, txalo-pin-txalo,  
katutxue mezmeru ganean dago,  
dago bego, bego ta dago  
zapatatxu barriek umeantzako.

**Iturria:** Iñaki Gamindek jasoa Diman.

**Azalpena:**

Umeari deigarri zaizkion hiru zentzu desberdinetako  
elementuak aipatzen dira:

- txaloak: eskuekin egindako zaratea,  
perkusiozko musika, entzumenarekin lotua.
- katu mezmeruaren gozotasuna  
ukimenarekin erlazionatua.
- katu olgetaria, ikuskizun legez, zapatarekin  
bizirolgetan.

### 14. Txikitxu polit hori

Txikitxu polit hori,  
norena zara zu?  
Neurea izango zara  
zeuk gure badozu.

Txikitxu ta polita  
gaztetxo ta zoro,  
danak amaitzen dira  
ezkondu ezkerero.

Madalen Busturiko  
amari negarrez,  
amantal barri barik  
ezkonduko danez...

Amamak emon deutso  
bosteko gorrie  
erosteko, Madalen,  
amantal barrie.

Despedidia da-ta  
ibili kontuen  
akabetera noa  
hurrengo puntuen.

**Iturria:** Edurne Atutxa (Dima)

**Azalpena:**

Ez kongaiak pobreak badira ezkontzean askatasunaz  
gain beste hainbat gauza ere galtzen dute, etxekoen  
laguntza ekonomikoa batipat. Hala ere, amama (familia)  
beti errukituko da eta laguntzeko prest agertuko.

### 15. Txirrintxanketan

Txirrintxanketan,  
Txirrintxanketan,  
Txirrintxanketan,  
akarra jantzan  
katue bibolin jotzen  
azagarie,  
azagarie,  
azagarie sueri puzke,  
erbie urun eralten.

**Iturria:** Lorentza Aldape (Dima)

**Azalpena:**

Animalia jostariak, ia-ia magikoak suaren bueltan  
magia sortzen. Ez dugu ahaztu behar tradizionalki  
akerra sorginkerarekin erkatu izan dela; musika, magia  
gertatzen dela katuaren eskuetan; azeri lapurrak suaren  
sekretuaren jabe dela; eta azkenik, erbia hirina,  
olagintza edo errotagintzaren maisu dela.

## 7. Aipamenak

- AMURIZA, Xabier. (1995). *Bizkaiko bertso-gintza-  
Izengabeak, I*. Bilbo: AEK.
- AMURIZA, Xabier. (1998). *Bizkaiko bertso-gintza-  
Izendunak, II*. Bilbo: AEK.
- AMURIZA, Xabier. (2006). *Bizkaiko bertso-gintza, III.  
Gerraurreko emoitza*. Durango: Bizkaiko Bertsozale  
Elkartea.
- AMURIZA, Xabier. (2006). *Bizkaiko bertso-gintza, IV.  
XX. mendea*. Durango: Bizkaiko Bertsozale Elkartea.
- AREJITA, Adolfo. (1983). "Zeanuriko koplak zaharrak".  
(Peli Etxebarriak batuak 1925. urtean). *Eusko-  
Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura ataleko  
kuadernoak*, 2. zk. 225.-236. or.
- ARRATIA, J. M. de. (1967). R. M<sup>a</sup> Azkueren  
homenaldian: *Cancionero popular vasco I*. Colección  
Añamendi, 56. Donostia: Ed. Añamendi.
- ARRATIA, J. M. de. (1968). R. M<sup>a</sup> Azkueren  
homenaldian: *Cancionero popular vasco II*.  
Colección Añamendi, 88. Donostia: Ed. Añamendi.
- ARRATIA, J. M. de. (1971). R. M<sup>a</sup> Azkueren  
homenaldian: *Cancionero popular vasco III*.  
Colección Añamendi, 88. Donostia: Ed. Añamendi.

- AZKUE, R. M. (1968). *Cancionero popular vasco*. Bilbo: La Gran Enciclopedia vasca.
- AZKUE, R. M. (1999). *Euskalerrriaren Yakintza*. 4 liburuki. Madrid :Espasa-Calpe.
- AZKUE, R. M. (1990). *Cancionero popular vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- AREJITA A.; ETXEBARRIA, I. eta IBARRA, J. (1995). *Mendebaldeko euskal baladak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- BARRENETXEA, Jose Mariano. (2000). "Bertsolaritza Galdakanon", *Zer* aldizkaria, 253. zk; baita ere, in [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz).
- DELMAS, Juan Ernesto. (1970). *Diccionario biográfico de Claros Varones de Vizcaya*. Bilbo: La Gran Enciclopedia vasca.
- ESPARZA, Iñaki & LARREA, Angel. (2004). *Arratiako euskal idazle aitzindariak (in memoriam)*. Edizio propioa.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel. (1999). *Zeberioko kantak*. Oiartzun: Auspoa-Sendoa.
- GAMINDE, Iñaki. (2006). "Olgetan-benetan. Umezaroaren lexikoa Bizkaian". *Euskalingua*, 8. Bilbo: Mendebalde Alkartea.
- IZA, Naiara & GAMINDE, Jon. (2006-2007). "Dimako kanten gainean (I eta II)". *Euskalingua*, 8 eta 11. Bilbo: Mendebalde Alkartea.
- GORBEIALDEA. *Dantzan VHS*. Areatza, Artea, Orozko, Zeanuri, Zeberioko udalak eta Bizkaiko Foru Aldundia. Galdakao: Bolingoza.
- GOROSTIAGA, Eulogio. (1930). "Cantares populares recogidos en Zeanuri (Vizcaya)". *Anuario de Eusko-Folklore (AEF)* aldizkaria, 10. zk., 7-33 or.
- HIRU TRUKU: MARTINEZ, B.; ORDORIKA, R. & TAPIA, J. (1994). *Mendebaldeko euskal baladak (I eta II)*. Emak Bakia.
- JUNKERA, Kepa, (2008) *Etxea- (I eta II)*. Warner Music.
- KALTZAKORTA, Jabier. (2007). *Dantza-kopla zaharrak*. Bilbo: Labayru Ikastegia / BBK.
- LEGARRETA, Asier. (1999). "Eustakio 'Eulea'", *Zer* aldizkaria, 237. zk.; baita ere, 9 in [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz).
- LEKUE, Ruper. (1978). *Arratiako zenbait kanta*. Argitaratu gabe.
- YURREBASO UGARTE, Mirari. (1984). *Dima aldeko kantak (Artaun, Lamindao, Ziarrustabeti eta Ziarrusta)*. Argitaratu gabe.
- YURREBASO UGARTE, Mirari. (2006). *Herri Jakintza. Dima herrian jasotako bertso kanta eta kontakizun desberdinak*. Argitaratu gabe.
- ZUBIALDE ESKOLA. (2009). *Ipuin, jolas eta esakerak*. Zeberio: Txubelaso bilduma.